

Gazteen (irakurketa) gustu eta disgustuak

MARI JOSE OLAZIREGI ALUSTIZA

Abstract

This paper discusses the results of a survey on reading habits we carried out during the academic year 1989-1990. The subjects of the survey were high school students who were at that time taking classes conducted in Basque in the autonomous regions of the Basque Country and Navarre. Given that reading plays a very important role in current Literary Criticism, we wanted to give a new orientation to the study of Basque Literature by attempting to elucidate the characteristics of the real literature reader and his/her correspondence with the prefigured reader (ideal reader in Iser's terminology) in the work. Despite the limitations imposed by the corpus, we believe our conclusions to be valid in the sense that they shed some light on some frequently posed questions. Preference for narrative genres, the significant role of the reader's sex and mother tongue, as well as the poor reception of translations are some of the results yielded by our survey.

A) Ikerlana kokatuz:

Euskal Literaturaren azterketarako hurbilketa BERRI baten beharraz

Robert Escarpit-ek bere *Sociología de la Literatura* (1971) liburuan dioskunez, liburu bat zer den jakiteko lehenengo bere irakurketaren berri eduki behar dugu. Gu, baieztapen hori harantzago eramanez honako hau esatera ausartuko ginatke: edozein hizkuntzatan eginiko Literatura baten nolakotasunaz iharduteko ezinbestekoa zaigu Literatura hori osatzen duten testu desberdinen irakurketaz jabetzea eta honetarako, irakurketa horien subjektua den irakurlegoaren ezagutza osoa edukitzea.

Jakina da literaturak, komunikazio ekintza denez, hiru elementu jartzen dituela harremanetan: idazlea, obra eta irakurlea, baina seguraski, deigarriena suertatzen zaiguna honako hau da, alegia, obra edo literatur testuaren izatea irakurketa ekintzak berak bakarrik ematen diola, eta irakurtzen den heinean bakarrik esistitzen dela testu hori eta, orohar, literatura hori.

Alabaina, gure belarrietara hain nabarmen gertatzen den baieztapen hori 1948. urtean Jean Paul Sartre filosofariak *Qu'est-ce que la littérature?* bere liburuan planteiatu zuen lehenengo aldiz, ordurarteko hurbilketa ontologiko eta fenomenologiko guztiak baieztapen simple batean bilduz: liburu bat irakurketarako makina bat da, eta horregatik irakurtzen den momentuan bakarrik ematen zaio izaera.

Baieztapen honen ondorioak hasiera batean pentsa daitezkeenak baino garrantzitsuago dira. Izan ere, irakurketari ematen zaion pisuari esker, ordurartean Literatur Kritikan Errusiako Formalismoaz geroztik defenditzen zen obraren berezko litera-

turtasunaren funtsa zalantzan jarri baitzen. Literaturu testu batek mezu bakarria ez duela onartzeak, testu hori irakurle desberdinen eskuetan jartzen dela onartu behar, eta hau dela eta literatur lana "irekia" da (Umberto Eco-ren terminologia erabiliz). Dena den, literatur testuaren izaera "ireki" hori onar dadin honako alderdi hauetan emango den bilakaera kontuan hartzekoa da:

a) Batetik "irakurketa-literarioa" delakoaren finkapena. J.A. Perez Rioja kritikariak *Panorámica histórica y actualidad de la lectura* (1986) liburuan esaten duenez, XIX. mendean koka daiteke helburu estetiko egiten diren literatur testuen irakurketa. Dakigunez, ordurarteko literatur irakurketak helburu funtzional batez egiten ziren eta XVIII. mendean eta XIX. mendean burutu ziren alfabetatze kanpaina desberdinetan zuten bere sorrera. Kanpaina hauen ondorioz esan daiteke, jadanik mende honetan literatura norberaren instruzio maila hobetzeko baino plazer estetiko dastatzeko baliabidezkat ikusiko dela, eta gizartearen onarpen händiagoa lortuz joango dela. Horrela, hasiera batean literatura Eskolari eta irakaskuntzari loturik agertzen bazen ere, urteak aurrera joan ahala, eta batez ere XX. mendearen hasieran, ikastetxeen mugak gaindituz gizarte osoak kontsumi dezakeen produktua bilakatuko da. Funtsean eskolatze prozesu bati irakurketa prozesu batek darraiola esan behar.

b) Gauza bera esan daiteke Literatur Kritikari dagokionez: literatura gizartearen maila guztietara helduz doan neurrian, bere alderdi soziala nabarmentzen den neurrian, Literaturari buruzko metahizkuntza den Kritikak ere aldaketarik jasango du.

1800.ean Mme. de Staël-en *De la littérature considérée dans ses rapports avec les institutions sociales* liburuak hasitako bideak ordurartean Kritikak bere zereginen barruan guztiz ahazturik zeukan alderdi soziologikoa aldarrikatuko du. Sarrera honetan norabide kritiko desberdinetan Soziologiarekiko ardura hori nola gauzatu den azaltzea lekuz kanpo badago ere, esan dezagun aipagarriak direla XX. mendea aurrera joan ahala sendotzen joan diren bi norabide desberdin: batetik, ikuspegi Soziologikoaz Literaturaren azterketa enpirikoan ihardun duen Robert Escarpit kritikariaren eskutik datorkiguna (Bordeleko Unibertsitateko "Institut de Littérature et Techniques Artistiques de Masse" (ILTAM) delakoa), eta bestetik, Constanzakako Unibertsitatean sorturiko "Rezeptionsästhetik" (Harreraren Estetika) delakoa.

d) Azkenik esan dezagun Literaturgintzaren beraren bilakaerak (jadanik XIX. mendean hasiko den aldakuntza nabarmenari esker), irakurlearen partehartze gero eta aktiboagoa eskatuko duela.

Errusiako Formalistez geroztik onartua dagoen historia/diskurtsu arteko desberdintasuna gogoratuz, esan daiteke XX. mendean barneratu ahala diskurtsua historiari gailendu zaiola. Literaturu testuak bere erreferenteari uko eginez, kontaketa bera nabarmendu nahi izan du.

Esandako azken hau begibistakoa izan da nobelaren kasuan. XX. mende hasieran Kafka, Joyce, Proust... eta hainbat idazleren eskutik eman ziren berrikuntzek ordurartean nobelaren beraren ezaugarri eta oinarri kontsideratu ziren atalen aldaketa eta birmoldaketa ekarriko dute. Honela, pertsonaiak ahultzen eta eskema huts bihurtzen dira, nobelaren "historia" beharra desagertzen da, denbora eta espazioaren erlatibotasuna nagusitzen da eta guzti hori gutxi balitz, ordurartean gidari guztiahalduna zen narratzailearen boterea eta zeregina zalantzan jartzen dira ikuspuntu partzial bat hartu beharrean aurkitzen denean.

Mende Erdialdera Frantzia sortuko den Nouveau Roman delakoaren partaideetako batek esango duen bezala, elaberria abentura baten kontaketa izatetik kontaketa baten abentura izatera pasatzen da, kontaketa bera gai bilakatzen delarik. Ondorioa begibistakoa da: irakurlearen konplizitatea eta partehartzea ezinbestekoak bihurtzen dira, ez bakarrik nobelari zentzua ematerakoan baizik eta elaberriaren beraren antolakuntza eta idazketan (honen adibide bezala 60ko hamarkadan sortutako O.U.I.P.O. delakoaren barruan Perce, Queneau edo Italo Calvino-k idatzirik hainbat elaberri aipa daitezke). (Jakina da elaberrigintzaren baitan diskurtsibitatearentz ematen den bira honen adibideak Espainiako Literaturan ere topa daitezkeela *Tiempo de silencio* (1962), *Un viaje de Invierno* (1972), *Juan sin Tierra* (1975),... eta beste hainbat elaberritan).

Orain artean batipat Literatur kritikaren eremuan eman den irakurlearen azterketarantz emandako bira hori zertan oinarritu den azaltzen saiatu bagara ere, puntu hau bukatu baino lehen gure Literaturari dagokionez ibilbide berri honek ekar ditzakeen ondorioen interesa eta beharra azaltzen saiatuko gara.

Lehenengoz eta behin esan dezagun, hurbilpen guztiz berri bat proposatzen dugula, izan ere, gure artean orain arte ez baita Euskal Literatur Irakurlegoari buruzko azterketarik egin (nahiz enpirikoki, nahiz "Harreraren Estetika"ren bide-tik). Hori dela eta, betiere hipotesi mailan onartu izan diren baieztapenak ez zaizkigu faltatu: "euskal literaturaren irakurlegoa eskoletan eta unibertsitatean dago eta gehienetan beharrak eragindako irakurlez osatua da", "gure artean literaturzale gutxi dagoenez, hizkuntza maila hobetzearren egiten dira irakurketa gehienak",...

Dena dela, gure artean badira autore-obra-irakurlea trinomio horretan lehenengo biak bederen ikuspegi soziologiko batetik aztertu dituztenak: J.M. Torrealdairen *Euskal Idazleak Gaur* (1977) eta Ibon Sarasolaren *Euskal Literatura numerotan* (1975) hain zuzen, lehenengoak euskal idazlearen azterketa eginaz eta bigarrenak literatur produkzioaren inguruko azterketa. Ildo beretik joango lirateke urtero *Jakin* aldizkarian J.M. Torrealdairi argitaratzen duen urteko liburu produkzioaren estatistika eta iruzkina.

Alabaina, dakusagunez, euskal literatur irakurlearen azterketarik eman ez den neurrian, ondoren proposatuko dugun lanaren helburu eta hedapenek soberan justifikatuko lukete zeregin honen interes eta momentu egokia.

B) Ikerlanaren helburuak eta inkestaren nondik norakoak

B.1. Sarrerako oharra

Inkesta hau egitea bururatu zitzaigunean gure helburu bakarra ez zen gure ertainetako ikaslego euskaldunaren literatur gustuen berri edukitzea, baizik eta, harantzago joanez, ikasleen aurresteen eta eskuartera iristen zaion literatur testuen artean legokeen distantzia estetiko hori neurtzea. Esan daiteke H.R. Jauss-ek bere *La Literatura como provocacion* (1967) liburu klasikoan Literaturaren Historia berritu bati egotzen zizkion helburu eta zereginak gure egiten saiatu ginela.

Horregatik, goian aipatu xede hori kontuan hartuz, jarraian aipatzen dugun inkesta eskuarteran dugun ikerketaren (doktorego tesia) zati bat besterik ez dugu eta partzialtasun horretan ulertu behar da. Bestalde, tesia aipatu dugunez, jarraian esan-

go ditugunak gerora etorriko diren ondorio orokorren puntu konketuak besterik ez dira izango, eta hori horrela izanik, beren behin-behineko izaera ez da ahaztu behar.

B.2. Irakurketa inkesta: egitasmo erakargarria

Egia esan, nahiko harrigarri gerta daiteke, komunikabideen gailentasuna nagusi den mende amaiera honetan McLuhan-en aurreustek ahaztuz irakurketak gure gazteen bizitzan duen pisua neurtzera bideratua dagoen inkesta bat egitea. Harrigarri diogu irakurketaz diharduelako, harrigarri, bestalde, euskal gazteriaren zati bati bideratua dagoelako.

Alabaina komunikabideak begi eta belarrietarik etengabe sartzen zaizkigun garai hauetan, liburuak oraindik orain badu bere pisua, eta gizakiaren garapenerako ezinbesteko tresnatzat jotzen dutenetik hasita, ikuspuntu objetiboago batean oinarritutako ikerketetan oinarritzen direnetera, gutxi jartzen du zalatzen liburuen beharra.

Aipatu azken ikerketa enpiriko horietako baten arabera, gazteen %75ak baino gehiagok irakurketa beharrezko kontsideratzen zuten bizitzan arrakasta edukitzeko, eta gazteen %36ak zoriontasuna irakurketarekin lotua zekusan.¹

Dena dela, gure artean esan ohi den bezala "ustek erdia ustel", eta zentzu honetan denok dakigu eguneroko gure bizitzan zein denbora gutxi ematen zaion irakurketari, edo zein gutxitan hartu ohi dugun eskuartearen libururen bat gustora irakurtzeko. Ildo honetatik doaz hainbat aldiz egunkari eta liburuetan irakurri ditugun berriak. Azkenaldiko bat aipatzearen, derragun Espainiako Kultura Ministeritzak eginberri duen azterketa batean espainiarren %42ak inoiz ez duela libururik irakurtzen esaten dela. Edo eta espainiarren %20ak liburu bat ere ez duela etxean, eta abar luze bat.

Halaber esan daiteke Euskal Herrian gertatzen denaz. Horrela, 1989an EUSTATEk Euskal Herriko 5.000 familiaran burutu zuen Bizi-kondizioen inkestan Aisiako ihardueren barruan "Elaberriak, antzerkia, poesia irakurtzea" galderari honako erantzun hauek ematen zitzaizkion (6 urte edo gehiagoko biztanlegoa hartu zelarik kontuan):

Ohituraz	% 23,4
Asteburuetan	% 4,5
Oporretan	% 3,0
Urtean inoiz edo	% 16,7
Inoiz ez	% 52,4

Galdera berari emandako erantzunak, inkestatuaren sexua kontsideratuz:

	<u>Emakumezkoak</u>	<u>Gizonezkoak</u>
Ohituraz	% 26,7	% 19,8
Asteburuetan	% 4,8	% 4,2
Oporretan	% 3,2	% 2,8
Urtean inoiz edo	% 15,0	% 18,6
Inoiz ez	% 50,2	% 54,6

(1) F. Lázaro Carreter, *El libro en la cultura de los 80*, Piramide: Madrid, 1984. Gai honi buruzko zenbait ikerketa eta inkestaren ondorioak ikus daitezke bertan.

Ikus daitekeenez, benetan esanguratsua da inoiz irakurtzen ez dutenen portzentaia, izan ere, erdiak baino piska bat gehixeago izatea inoiz irakurtzen ez duena goian aipatu dugun egungo egoeraren ildotik baitoa.²

Hala ere, ikerketa egiten hasi ginenean sortu ziren galdera hauekin batera, baze- goen beste datu bat ikerketa nondik bideratu erabakitzen lagundu ziguna, hau da, irakurketa maiztasun-adinei zegokiena. Izan ere, mende bukaera hau irakurzaletasu- na sortzeko garairik egokiena ez dela onartuz, bada datu bat beti ildo beretik doana, hots, adinak gora egin ahala irakurketa-maiztasuna gutxitu egiten da. Beste hitzez esateko, gazteak dira gehien irakurtzen dutenak.

Azken datu hau frogatzeko, begiratu besterik ez dago lehen aipatu dugun EUS- TATEko inkesta horretan galdera berari ematen zaion erantzun desberdina adinaren arabera:

(Galdera: Aisian "elaberriak, antzerkia, poesia irakurketa")

ADINA	<35	35-59	>60
Ohituraz	% 31,8	% 18,3	% 11,3
Asteburuetan	% 6,1	% 3,8	% 1,9
Oporretan	% 3,6	% 2,9	% 1,5
Urtean inoiz edo	% 20,9	% 14,6	% 10,1
Inoiz ez	% 37,6	% 60,4	% 75,2

Adituek diotenez, 16-24 urte artean ematen da irakurketa indize handiena, eta adin horietan jadanik gutzitz finkaturik daude irakurketa ohitura eta zaletasunak. Egin diren zenbait ikerketaren emaitzak laburki adieraziz, hona hemen talde horren garrantzia azpimarratzen duen zenbait datu:

- Estatu Baruetan 1969an egindako inkesta batean (ikus Bibliografian) ondoren aipatzen diren adin hauetan ematen den irakurketa-indizea honako hau dugu:

21-34	urtekoen artean	% 70ak	irakurtzen du
35-49	" "	% 57ak	" "
+ 50	" "	% 43ak	" "

- Britania Handian 1969an egindako inkesta baten arabera:

16-34	urtekoen artean	% 32ak	irakurtzen du
+ 55	" "	% 23ak	" "

- Kanadan 1970ean egindako inkesta batean dakusagunez:

15-24	urtekoen artean	% 83ak	irakurtzen du
25-44	" "	% 51ak	" "
+44	" "	% 47ak	" "

(2) EUSTATEk eginiko inkesta honetan Aisiari dagokion atalean galdera bakarra dago irakurzaletasunaz. Honekin batera, aipagarria da etxeetako ekipamenduez galdetzean etxean dauzkaten liburuez ez galdetzea eta bai beste hainbat gauzak (esate baterako, kirol egiteko hainbat tresnaz: raketak, pilotak, baloiak,... etab.). Espero dezagun hurrengo inkestetan irakurketa/liburuez galdera gehiago sartzea.

- Espainian 1978an Instituto Nacional de Estadística-k egindako “Encuesta sobre los hábitos de lectura” delakoaren arabera:

20-29	urtekoen artean	%	63ak	irakurtzen du
30-49	”	”	% 47ak	”
50-69	”	”	% 41ak	”
70-79	”	”	% 34ak	”

- Frantzian 1982an Ministère de Culture-k egindako inkestaren arabera:

15-24	urtekoen artean	%	91,1ak	irakurtzen du
-------	-----------------	---	--------	---------------

Honekin batera, adin horretako ikasleen irakurketa-ohiturei buruzko inkesta batek eduki dezakeen garrantzia frogatzeko, gogora dezagun gure artean talde horrek populazio osoan duen pisu nabarmena. Batetik, EUSTATEk 1986ko Erroldatik ateratako datuen arabera, Euskal Autonomi Elkartearen 513.824 euskaldun badaude (populazio osoaren %24,58a), badirudi Literatura irakur dezakeen kolektibo horretatik %65-70a Irakaskuntza Ertainetako eta Unibertsitateko ikasleak direla. Orobat Nafarroako datuei dagokienean: probintzia honetan euskaldunen kopurua 36.388koa bada (populazio osoaren %10a), hortik %34,9a Irakaskuntza Ertainetako eta Unibertsitateko ikasleagoak osatzen du.³

Bestetik, urtero *Jakin*-en gure liburu produkzioari buruz datu eta iruzkinak eskeintzen dizkigun Joan Mari Torrealdaik dioskuna gogoratuz, euskal liburu produkzioaren portzentaia handi bat gazte jendearentzat egindako liburuak osatzen du.⁴

Bukatzeko, esan dezagun gazte eskolatu talde honek eduki dezakeen interesaz gain, bazegoela aukeraketa horren atzean arrazoi praktiko bat: inkestak “egingarria” izan behar zuen, talde zehatz bati zuzendua, eta burutzen erraza. Horregatik Ertainetako ikasleago euskalduna aukeratu genuen, proiektuak interesgarria ezezik egin zitekeena zirudielako.

D) Inkestaren deskribapen teknikoa

“Irakurketa Ohiturei Buruzko Inkesta” deitu genion honen helburua ertainetako euskal ikasleagoaren literatur gustuak eta irakurketa ohiturak argitzea zelarik, azterkizun zena ezagutzen zuen norbait eta, bestalde, ikerketa nola burutu zekiena behar genituen.

Hori horrela izanik, ikerketa honek bi egile ditu atzean. Batetik, behean sinatzen dudana hau, Ertainetako Euskal Hizkuntza eta Literatura irakaslea eta, bestetik horrelako ikerketa motetan aditua den Luciano Miguel soziologoa. Madrilgo Intergallup Soziologia Ikerketa Agentzian ikerketa-teknikari lanetan ziharduen eta bion artean erabaki genuen zein motatako galderak egin eta nola aukeratu inkestatuak. Honekin batera, inkestaren datu guztiak lortu genituenean Madrilgo SIC (Servicios Informáticos Centrales) entresari agindu genion inkesten informatizazioa.

(3) Ikus datu hauei buruz *Jakin* aldizkariaren “Euskara Nafarroan” ale monografikoa. (56.zb. 1990eko urtarrila-otsaila).

(4) Esate baterako, 1989an 732 titulu atera baziren, hauetatik %49,5a gazte jendearentzat egindako liburuak zen. 1991ean 966 titulu berrietatik %37,4a haur eta gazte-literaturak osatzen zuen.

Honako hau dateke, inkestaren fitxa teknikoa:

a) Mostra: Hego Euskal Herriko (Eusko Autonomi Elkarteko eta Nafarroako) ertainetako ikasle euskaldunak. Ikaslego honek honako ezaugarri hauek edukiko zituen:

a.1) Guztiak "D" ereduan zebiltzanak ziren. Euskal ikasle alfabetatuak nahi genituen eta, horregatik, euskarazko hizkuntz gaitasunean arazorik gabeak. Hau dela eta, Irakaskuntza Ertainetan indarrean dagoen "A eredu indartua" baztertzea erabaki genuen.

a.2) Ikasleen korpusa ikastetxe mota guztietako ikasleek osatuko zuten. Euskal Autonomi Elkartean: ikastoletakoek, pribatuetaoek eta ikastetxe publikoetaoek; Nafarroako Foru Komunitatean: Espainiako Hezkuntza Ministeritzakoek, ikastoletaoek, Nafarroako Gobernuetaoek eta Udal ikastetxeek.

a.3) Irakaskuntza Ertainetan biltzen diren ikasketa-mota desberdinak hartuko ziren kontuan: Balioaniztun Batxillergo Bateratua (BBB), Irakaskuntza Ertainetako Erreforma (IEE) eta Lanbide Heziketa (LH).

Hona jarraian ikasle kopuruak:

Euskal Autonomi elkartean:

	<u>"A" EREDUA</u>	<u>"D" EREDUA</u>
IEE	20.494	5.248
BBB, UBI	83.49	14.499
LH	<u>50.551</u>	<u>1.785</u>
GUZTIRA	154.543	21.532

Nafarroan:

	<u>"A" EREDUA</u>	<u>"D" EREDUA</u>
IEE	1.207	28
BBB, UBI	18.440	1.125
LH1	<u>2.071</u>	<u>212</u>
GUZTIRA	31.718	1.365

Inkestak bere gain hartzen duen ikasle populazioa: 22.897 ikasle.

Datu guzti hauek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Nafarroako Gobernuo Hezkuntza sailak eskuratu zizkigula esan behar. (Ikus II. eranskinean ikastetxe guztien zerrenda).

b) Populazio horretan 3.000 inkesta egitea pentsatu zen. Egia esateko, inkesta kopuru hau izugarria dela esan behar da (kalkuluak eginda 500 ikasletako mostra batek %4,5eko errore marjina edukiko lukeela kontsideratuz). Arrazoia oso sinplea da: irakurketa ohitura inkesta bat denez, gero irakurle mota desberdinen robot irudiak lortu ahal izateko nahikoa handia zen marjinaz jokatu nahi izan genuen.

b.1) Mostra aukeraketa hori hiru baldintza hauek kontuan hartuta burutu zen:

- * Ikastetxea kokatuta dagoen udaletxearen tamainua
- * Ikasle kopurua ikastetxean
- * Ikastetxean dauden ikasle euskaldunen portzentaia

Ikastetxe guztiak aipatu hiru aldagai horien arabera sailkatu ondoren, azarean hautatutako ikastetxe zerrenda bat irten zitzaigun. Zerrenda honetan Hego Euskal Herriko 52 ikastetxe desberdin irten ziren. Jarraian ipintzen dugun mapa hauetan ikus daiteke probintzia desberdinetako zein herritan burutu genituen inkestak.

Bestalde, esan beharra dago, III. Eranskinean ikus daitekeenez, gure inkestak bere gain hartzen duen populazio zabalari esker, eremu euskaldun nahiz erdaldunduenera iritsi ginela.

b.2) Orain azaltzea luzaro joko lukeen zenbait arazo dela medio (postan galdu ziren inkestak, bidalitakoak baino gutxiago igorri zizkiguten ikastetxeak,...) 3.000 inkestetatik 100 gutxiago jaso genituen, eta geratzen zirenetik batzuk (23) baliogabetu ondoren, 2.876 inkesta ditugu kontuan hartu direnak.

d) Inkesta egiteko moduari dagokionez, ikastetxe desberdinetako Euskara Mintegietako irakasleen laguntza handiaz egin dela esan behar. Postaz inkestak jaso ondoren irakasleek euren euskara klase bat erabili behar zuten ikasleek egin zezaten. Inkesta honek 30 minutu edo iraungo zuela iragarri genien. Berrito diogu, benetan ona eta eskergarria izan da euskara irakasleen partaidetza.

Hala ere, zenbait ikastetxetara bertara joan behar izan genuen irakasleekin horrela gelditu ondoren. Inkestak egin eta gero, mintegirako pasatzen genien inkesta bat bete ondoren postaz edo bertatik paseaz eskuratzen genituen.

e) Inkesta hau 1989-90 ikasturtean, 1990eko apirila-maiatzean egin zen azarean hautatutako 52 ikastetxe desberdinetan.

f) Azkenik, esan dezagun inkesta honetan gerora erantzun desberdinetan duketen eragina neurtzeko baliagarri gertatu zitzaizkigun zenbait aldagai erabili genuela. Hauexek ditugu: ikasketa mota, ikastetxe mota, ikasmaila, sexua, probintzia, gurasoen ogibidea, gurasoen euskara-maila, euskaldunzaharra/euskaldunberria izatea eta etxeko liburu kopurua.⁵

E. Irakurketa ohiturei buruzko inkestaren deskribapena

Inkesta honen helburu nagusienetakoa eredu euskalduneko ertainetako euskal ikasleen irakurketa ohitura eta gustuei buruzko datuak lortzea izango litzateke.

Helburua hori izanik, lehen esan bezala, ikasleek beraien ikasgeletan bete zezaketen galdeketa prestatu genuen ikerketaren helburuei erantzungo zien datuak bildu ahal izateko. Aipatu galdeketa hau prestatzeko garaian irakurketa ohiturei buruz eskuartearen genuen zenbait inkestaz baliatu ginen, besteak beste, Robert Escarpit-en zuzendaritzapean Bordelen soldadu koartel batean egin zena 1962. urte amaieran,

(5) Ohar garrantzitsu bat egin nahiko genuke *eragina* hitzaz. Kontu handiz erabili eta ulertzekoa delakoan gaude, izan ere, mota honetako ikerketetan emaitza konkretu bat aldagai baten eragin zuzena datekeela esatea ezinezkoa baita. Horren ordez *barreman* edo *koerlazio* hitzak zuzenagoak badira ere, oso egokiak iruditu ez zaizkigunez, nahiago izan dugu *eragin* hitza erabili. Beraz, adibide bat jartzekotan "gurasoen euskara-mailak irakurzaletasunean eragina du" bezalako baieztapena egiten dugunean, "inkestaren arabera gehien irakurtzen duten ikasleen gurasoek euskara-maila ona dute" ulertu behar da, gurasoek euskara ongi jakiteak ez baitu derrigorrez seme-alaba irakurzaleak irtingo direnik esan nahi.

eta bestalde, Espainiako Gobernuko Instituto Nacional de Estadística-k 1974an burutu zuena.

Ereduak eredu, argi zegoen beste inkesten adibidea abiapuntu gisa ongi zetorkigukeela, baina bazirela gure kasuan aipatu inkestetan kontuan hartzen ez zen zenbait ezaugarri:

a) Batetik, inkesta populazio eskolatura bideratua egoteak emaitzen inguruan kontuan hartu beharreko tasun nagusienetakoa eskaintzen zuen: ikasleek eskolatuak izateaz ezezik oraindik orain beren ikasketak burutzen zihardutenaz, argi zegoen irakurketa estetikoa eta irakurketa funtzionala (helburu akademikoei erantzuten die-na kasu honetan) bata bestearengandik oso hurbil ibiliko zirela.⁶

b) Inkestak bere gain hartzen duen populazioaren berezkitasunen artean irakas-kuntza sistemak eskaintzen dizkigun gainerako ezaugarriak genituen, alegia, bai Euskal Autonomi Elkartearen eta bai Nafarroan Ertainetan hizkuntz eredu desberdinak ezezik ikastetxe mota desberdinak ere ditugunez, horien ezaugarriak zedarritu beharko zituen inkestak. Gauzak horrela, ikaslea ikastola, ikastetxe pribatu edo ikastetxe publikokoa izan zitekeelarik, ikastetxe motak irakurzaletasun desberdina dakarkeen ikusi beharko litzateke.

c) Azken puntu gisa, inkesta gehienen ezaugarri den anonimotasunari buruz zenbait ohar egin nahi genuke. Inkestaren lehenengo orrialdean ikasleari anonimotua eta datuei buruzko konfidentzialtasun osoa ziurtatzen bazitzaion ere, amaieran beraiak hala nahi izanez gero, datu pertsonalak eskatzen zitzaizkien (izen-abizenak, helbidea, telefonoa) ikerketak aurrera jarraituz gero beraien lankidetzara eskatu asmoz. Egia esatekotan, pozgarri suertatu zitzaigun ikaslegoaren gehiengo zabalak eskaini zigun lankidetzara bere datuak emanez.

Gatozen, beraz, inkestaren beraren ezaugarriak zehaztera. Gure inkesta hogeita bat galderaz osatua dago eta honako hau litzateke galderen egituraketa:

1) Lehenengo hiru galderak irakurketa maiztasunari dagozkio. Hauen artean lehenengo biek maiztasun hori jenero bakoitzaren kasuan zenbatekoa den jakin nahi dute, beraz, "Ondoren ipintzen dizugun literatur jenero bakoitza adieraz ezazu zein maiztasunekin irakurtzen duzun ERDARAZ (1go galdera) / EUSKARAZ (2. galdera)" galderari honako maiztasun taula jarraituz erantzun behar zioten:

egunero
astean zenbait aldiz
hilean zenbait aldiz
inoiz ez

(6) Hipolito Escolar-ek *El lector, la lectura, la comunicacion* (Anaba: Madrid, 1972) liburuan hiru irakurketa mota bereizten ditu. Lehenengoa informatiboa edo dei daitekeena, zeinaren helburu nagusienetakoa ikastea eta informazioa lortzea den. Hemen sartuko lirateke testu liburuak, kontsulta liburuak (hiztegiak, egunkariak, aldizkariak,...) eta agiriak. Bigarren bat irakurketa hezitzailea litzateke. Aisialdi irakurtzen diren liburuez osatua, fikziozkoak ez direnak, klasikoak. Azkenik, irakurketa atsegingarria genuke, gazte-literaturan ematen diren irakurketa fantastiko, misteriozko edo abenturazkoek osatutakoa.

Egia esan, banaketa hirukoitz hau baztertuz (bigarren eta hirugarren irakurketa mota banaketari soberakoa erizten baitiogu) nahiago izan dugu banaketa bikoitz batera mugatu. Horrela irakurketa estetikoa, gustoz egiten dena eta Literatura bera helburu bakarra duena izango litzateke. Bestalde irakurketa funtzionala genuke, jakintza maila bat lortzeko egiten dena, eta gehienetan agindu bati erantzuten diona.

Jeneroen zerrenda honako hauek osatzen zuten:

elaberria
narrazio laburra (ipuinak)
bertsoak
olerkia
antzerkia
historia-kritika
herri-literatura

Banaketa honi buruz zenbait ohar egin beharrean gaude. Batetik, jakina da egungo literatur kritikan kritiko guztiak ez datozela bat narrazio laburra=ipuina bikotearekin, izan ere, aspaldidanik ezagutzen baitira bakoitzaren ezaugarrien berez-kotasunaren inguruan izan diren eztabaidak. Hori horrela izanik, eta kritika-eztabai-da hauek onartuz, ikaslearen, eta orokorki ohizko literatur irakurlearen eritzi edo ustea errespetatu nahi izan dugu, eta, bide batez, ikasleagoaren ulermena errazten saiatu gara.

Maiztasunaren inguruan eginiko galde-sorta honekin amaitzeko, hirugarren gal-dera orokorrago bat egiten genuen: "Euskaraz azken liburua irakurri duzuetik zenbat aste igaro dira?".

2) Laugarren galderak eskolatik kanpoko irakurketa neurtu nahi zuen, eskolan agintzen zaizkien liburuez gain irakurri zituztenak zeintzuk ziren esan behar ziguten, beraz. Horretarako, bost lehiatilarxo eskeintzen zitzaizkien autorea/titulua idatz zitzen. (4. G: "Joan den udan eskolako programatik kanpo irakurri zenituen liburuak aipa itzazu (osorik irakurritako liburuak bakarrik)."

3) Bosgarren eta zazpigarren galderen helburua ikasleagoak gogokoen duen elaberri mota zein den jakitea zen. Horretarako, jokabide bikoitza jarraitu genuen, bate-tik, elaberri mota desberdinen zerrenda eskainiz gehien eta gutxien gustatzen zi-tzaizkien elaberriak adierazi behar zizkiguten, kasu bakoitzean bi aukeratzen zituztelarik (G.5 "Ondoren datozen elaberri mota hauetatik zeintzuk dira GEHIEN eta GUTXIEN gustatzen zaizkizunak (bina aipatu)". Honako hauek osatzen zuten elaberri-mota zerrenda:

—Abenturazkoak
—Zientzia fikziozkoak
—Erotikoak
—Historikoak
—Arazo sozio-politikoei buruzkoak
—Poliziakoak/Espionaiazkoak
—Misteriozkoak
—Existenzialistak/Psikologikoak

Alabaina, gure iritziz, elaberri-mota desberdinekiko zuten zaletasun hori igar-tzeko, teoriar adierazitako aukera horiek praktikan nola gauzatzen ziren ikusi beha-rra zegoen. Hau da, ikasleak jarraian eskaintzen zitzaion elaberri-titulu zerrenda batetik aukeratuko zituzkeen biak eta baztertuko zituzkeenak adierazi behar zizki-

gun; modu honetan aurreko galderan esandakoa aukera errearekin bat zetorren ala ez jakin ahalko genuen.

Ezaguak zitzaizkien elaberriek beren aukera baldintza ez zezaten, jarraian eskeintzen genizkien elaberrien titulu guztiak asmatutakoak ziren, eta nolanaohiere, titulu bakoitza elaberri-mota desberdinari zegokion (G. 7. "Orain zazpi elaberrien tituluak proposatzen dizkizugu. Titulua bakarrik jakinik esan aukeratuko zenituzkeen biak eta baztertuko zenituzkeen beste biak. (Aukeratuko nituzkeenak/baztertuko nituzkeenak").

Hala bada, honako hau dugu tituluen zerrenda:

- "Peter Smith Amazonetan" (abenturazkoa)
- "Lulu-ren gau lizunak Turkian" (erotikoa)
- "Zumalakarregiren azken irteera" (historikoa)
- "Douglas inspektorea hiltzailearen atzetik" (poliziakoa)
- "Iraultzaren ateetan" (arazo sozio-politikoei buruzkoa; konpromezuzkoa?)
- "Ezinegona" (existentzialista/psikologikoa)
- "Piramide sorginduaren sekretua" (misteriozkoa)

4) Ikasleen gustuak eta irakurketa maiztasuna ezezik liburu desberdinak aukeratzekoan zein alderdi hartzen zuten kontuan eta zein ez jakin nahi genuen, eta seigarren galdera hori argitzera zetorren. (G. 6 "Irakurtzen dituzun liburuak aukeratzekoan, ondorengo zein alderdi hartzen duzu kontuan. (Bi aipatu bakoitzean)". Jarraian datozenak dira guk eskeintzen genizkien aukerak:

- Titulua
- Egilea
- Euskaraz idatzia egotea
- Liburuaren itxura
- Zure irakaslearen iritzia
- Kritika. Egunkarietako aipamena
- Inguruko jendearen iritzia.

Galdera honi emandako erantzunei esker liburura hurbiltzerakoan alde aurretik jakindako inpresio edo iritziei jarraitzen zaizkien jakingo genuen; edo eta itxura hutsagatik aukeratzen duten. Aukera hauen parean jartzen genuen hizkuntz motibazio bati erantzungo liokeen aukera.

5) Ikasleagoak euskaraz irakurritakotik gehien gustatu zaizkien bost autoreren izenak (gehien atsegin dutenetik gutxien atsegin dutenera ordenaturik) eskatu genizkien zortzigarren galderan. (G. 8 "Euskaraz irakurri dituzun egile desberdinetatik, aipa itzazu gehien gustatu zaizkizun bostak (gehien atsegin duzunetik gutxien atsegin duzuna ordenatuz)."

6) Guziarekin ere, ikasleagoaren zaletasun eta aukeretan alderdi desberdinek duten eragina neurtzea bezain interesgarri eritzi genion irakurgaiak nola lortzen zituzten jakiteari. Horretarako bederatzigarren galderan aukera desberdinekin zerrenda bat eskaini ondoren bakoitza zein maiztasunekin ematen zen galdetzen genien (G. 9

“Esaidazu euskaraz irakutzen dituzun liburuak non lortzen dituzun, maiztasunaren arabera 1, 2 edo 3 adieraziz”). Hauek dira aukera desberdinak:

- Etxeko liburutegian
- Ikastetxeko liburutegian
- Liburutegi publikoetan
- Lagunek utzitakoak
- Familiakoek utzitakoak
- Erosiak

7) Inkestaren egituraketan hurrengo atal gisa ikasleek eskolan jasotako euskal literatura-klaseez zuten iritzia jakin nahi izan genuen. Horretarako, hamar eta hamaikagarren galderak egiten genizkien, azken hau beraiekiko adostasuna adierazi behar zuten lau baieztapenek osatzen zutelarik.

Hamargarren galderak eskolan irakurtzeko agindutako liburuei buruzko iritzia jaso nahi zuen, aldeko irizitik kontrakora lau aukera ematen genituelarik (G.10 “Eskolan irakurtzeko agintzen dizkizuten liburuak zer iruditzen zaizkizu?”):

- Oso interesgarriak
- Nahiko interesgarriak
- Interes gutxikoak
- Batere interesgarriak

Ondoren, esan bezala, lau baieztapen egiten genituen hamaikagarren galderan, bakoitzarekiko adostasuna edo ezadostasuna adierazi behar zutelarik:

- “Eskolan jaso ditudan euskal literatura-klaseek literatura zer den hobeto ulertzen lagundu didate”
- “Eskolako euskal literatura klaseek literatura gehiago irakurtzera bultzatu naute”
- “Euskal literatura klaseek nire euskara maila hobetzen lagundu didate”
- “Euskal literatura klaseek Euskal Herriaren nortasuna hobeto ulertzen lagundu didate”

8) Klaseez gain, ikasleek orokorrean Euskal Literaturaz zuten iritzia jakiteko 12, 13 eta 14. galderak egiten genizkien. Jarraian ipintzen ditugun hauek dira aipatu galderak:

“G.12 -Zer da zuretzat Euskal Literatura irakurtzea?. Adieraz ezazu zure iritzia hobekien isladatzen duen adjetiboa:

- entretengarria
- hezitzailea
- interesgarria
- aspergarria
- alferrikakoa”

“G.13 -Zer iruditzen zaizu Euskal Literatura? (euskal idazleek euskaraz idatzitako literatur-lanak osatzen dutena bezala ulertuz). (Bat aukeratu)

- a) Euskal Literatura beste hizkuntzatan idatzitako Literatura baino interesgarriagoa da.
- b) Euskal Literatura beste hizkuntzatan idatzitako Literatura bezain interesgarri da.
- d) Euskal Literatura ez da beste hizkuntzatan idatziatako Literatura bezain interesgarri.
- e) Euskal Literatura ez da interesgarri”.

“G.14 -Euskal gizartearen barruan zer garrantzia dauka zuretzat euskaraz irakurtzeak?”

- a) garrantzia handia dauka
- b) nahiko garrantzia dauka
- d) garrantzia gutxi dauka
- e) ez dauka garrantziarik

9) Azkenik, irakurketa-ohiturei buruzko galdaketa amaitutzat joaz, ikaslearen datu akademikoak eta sexua (16. galdera), euskaldun zaharra ala euskaldun berria den (17. galdera), gurasoen ikasketak (18. galdera), gurasoen ogibidea (19. galdera), gurasoen euskara-maila (20. galdera) eta etxean daukaten euskarazko liburu-kopurua (21. galdera) galdetzen genizkien. Galdera multzo honekin inkestaren ondorioak islatzen dituzten tauletan emaitza bakoitzarekin erkatu beharreko aldagaiak lortu genituen.

16. galderan ikasketei buruz galdetzen zitzaielarik, honako aukera hauek ematen genizkien: BBB, UBI, LH eta IEE (kontuan hartu, bestalde, inkesta hasieran ikastetxe mota ezezik ikastola, pribatua ala publikoa, herria eta probintzia ere adierazi behar zirela). Jarraian ikasturtea adierazteko eskatzen genien.

18. galderan, gurasoen ikasketa-mailari buruz iharduterakoan honako sailkapen honetan ama eta aitak zein ikasketa-maila zuten adierazi behar ziguten:

- Ikasketarik gabea
- Eskolaurrea eta lehen mailakoak
- Profesionalak
- Bigarren mailakoak
- Erdi-Goimailakoak
- Goimailakoak

19. galderan, ogibideaz galdetzean, honako hau da jarraitutako eskema:

- Profesionala, teknikaria
- Administrazio-langilea
- Merkataria, saltzailea
- Zerbitzuetako langilea
- Nekazaria
- Langilea
- etxeko-lanak
- ez-aktiboak

Euskara-maila neurtzerako garaian (20. galdera) ondorengo banaketa hau egiten genuen:

- Ulertzen du, hitzegiten du, irakurtzen du eta idazten du
- Ulertzen du eta hitzegiten du, baina ez daki idazten eta irakurtzen
- Ulertzen du, baina ez du hitzegiten, ez du idazten eta ez du irakurtzen
- Ez du ulertzen, ez du hitzegiten

Azkenik, inkestari amaiera emanez, liburu kopuruari dagokionez (21. galdera) jarraian datorren banaketa egiten genuen:

1. - 0tik 20 liburutara
2. - 20tik 50 liburutara
3. - 50 liburu baino gehiago.

INKESTAREN EMAITZEN AZTERKETA

F.I. Irakurketa maiztasunari buruzko ondorioak

G.1 Irakurketa maiztasuna euskaraz

Emaitza orokorrak. Bertikalak (%)

IRAKURKETA MAIZTASUNA EUSKARAZ

	ELABERRIA	IPUINAK	BERTSOAK	OLERKIAK
Egunero	5,0	3,3	1,8	0,5
Astean zenbait aldiz	23,3	21,6	10,5	4,3
hilean zenbait aldiz	56,5	50,0	33,9	21,9
inoiz ez	12,2	21,6	48,3	66,8
ez daki/ez du erantzuten	2,2	3,5	5,4	6,5

	ANTZERKIA	HISTORIA KRITIKA	HERRI LI.
Egunero	0,2	2,6	1,5
Astean zenbait aldiz	1,7	7,5	9,8
hilean zenbait aldiz	17,0	21,8	34,8
inoiz ez	74,1	61,5	48,0
ez daki/ez du erantzuten	7,0	6,7	5,9

Maizen irakurtzen dena elaberria da, dudarik gabe; jarraian, ipuin edo narrazio laburrak datoz. Esan daiteke, orokorrean, jenero guztietan hilean zenbait aldiz gauzatzen den irakurketa dela maizen ematen dena, nahiz eta, dakusagunez, elaberri eta ipuien kasuan asterokoak pisu handia eduki, nolabaiteko ohitura baten adierazgarri. Jenero guztiak kontuan hartuz, hauxe genuke irakurketa maiztasunaren arabera eginiko zerrenda:

1. - Elaberria
2. - Ipuinak
3. - Bertsoak / Herri literatura
4. - Historia. Kritika
5. - Olerkia
6. - Antzerkia

Zerrenda honen ostean burura datozkigukeen oharren artean aurkez ditzagun:

1. Elaberrigintza eta ipuingintzaren kasuan ezik, aipagarri da beste jeneroetan inoiz irakurtzen ez dutenen gehiengoa, hauen artean olerki eta antzerkiarena direlarik azpimarragarrienak.

2. Bestetik, argi dago, logikoa denez, maizen irakurtzen dituen jeneroek gain (narratibazkoak, alegia) beste kasuetan "ez daki/ez du erantzuten" erantzunen igoera nabarmena, ikaslearen ezagutza falta edo adieraz lezakeena.

3. Datu hauetan deigarri suerta daiteke, Historia eta Kritika lanak olerkia edo antzerkia baino maizago irakurtzea ere (egunero: %2,6; astero: %7,5), literatura mota horren urritasuna kontuan hartzen bada. Honi dagokionean, "ed/ee" ataleko %6,7 horri kasu egitea derrigorrezkoa dateke, agian "historia" horren atzean jenero desberdintasuna baino gehiago narratiba historikoaren oihartzuna ikusi baitu ikasleak.

F.II. Euskaraz ematen den irakurketa maiztasunean aldagai desberdinen eraginaz

Orokorrean elaberriarekiko zaletasuna nabarmen ikusten den emaitza hauetan badira zenbait xehetasun azpimarragarri:

I.a) Ikasketa motari (BBB, LH, IEE) dagokionez:

I.a.1 Elaberrizaleenak BBB eta IEEko ikasleak diren bitartean, LHn topatzen dugu inoiz elaberririk irakurtzen ez duen ikasle kopuru handiena. Ikasle hauek, aldiz, ipuinak maiztasun handiagoz irakurtzen dituzte BBB eta IEEkoek baino (nahiz eta kontrako joera ere nabarmena den). Dena dela, beste ikasketa motak jarraitzen dituztenak dira (BBB, IEE) ohitura orekatuagoa dutenak (hileroko irakurketaz ari gara batipat).

I.a.2 BBB eta IEEkoak ditugu ere Herri Literatura maiztasun handiagoz irakurtzen dutenak.

I.a.3 Bertsoei dagokionez, LHko ikasleen datuak deigarriak dira, ikasle hauek baitira maiztasun handienaz eta txikienaz irakurtzen dutenak, bi joerak batzen dira, beraz, LHn. Azkenik, esan dezagun LHko ikasleak ditugula Historia eta Kritika gutxien irakurtzen dutenak ere (BBBkoak zaletuagoak dira, dudarik gabe).

I.a.4 Olerkigintza, nabarmenki, BBBkoen gustokoa da, ondoren datoz IEEkoak eta gero, azkenik, LHkoak.

I.b.) Kurtsoaren (ikasmila) eraginaz:

I.b.1 Joera nabarmena da adinak gora egin ahala irakurketa maiztasuna gutxitzen dela jenero guztietan. Egunerokoaren jaitsierak hileroko irakurketa dakar adinarekin.

I.b.2 Historia/Kritika eta Herri Literaturari dagokienez, ez da hain azpimarragarria maiztasun aldaketa hori adinarekin.

I.c Ikasleen sexuaren eraginaz:

I.c.1 Orokorrean neskek mutilek baino maizago irakurtzen dutela esan daiteke. Desberdintasun hori elaberri eta olerkiaren kasuan nabarmena bada, ez da hala gertatzen ipuin eta antzerkiaren kasuan, kasu hauetan desberdintasuna ez baita handia.

I.c.2 Esan daiteke joera hori apurtu egiten dela Bertsoen eta Historia/Kritikaren kasuan, izan ere, oraingoan mutilak baitira zaltetuenak.

I.c.3 Herri Literaturaren kasuan berdintsu dabilta mutilak eta neskek.

I.d) Gurasoen ikasketa mailaren eraginaz:

Zenbait jenerotan oso adierazgarria ez den bitartean (Herri Literatura, antzerkia) badira zenbait kasu gurasoen ikasketa mailak joera bat bultzatzen duena:

I.d.1 Amaren ikasketa maila altuagoak elaberri-irakurketa maiztasun handia dakar, jenero honen kasuan amaren prestakuntzak eragin handiagoa duelarik aitarenak baino.

I.d.2 Ipuinzaletasunean bitxia da benetan gertatzen den joera bikoitza: batetik, ama ez-ikasien seme-alabek ipuin gehiago irakurtzen dutela esan daiteke, baina, bestetik, aiten kasuan, hauen ikasketa maila altuak dakar ondorio bera.

I.d.3 Azkenik, aipa dezagun Bertso-irakurketan eragin nabarmena duen ezaugarria: gurasoak ikasketa gabekoak direnean maiztasun handiagoz irakurtzen dituzte seme-alabek bertsoak.

I.e) Beste aldagai bati eutsiz, ikaslegoak etxean duen euskal liburu kopuruak jenero guztietan nabarmen isladatu du bere eragina: gero eta liburu kopuru handiagoa orduan eta maizago irakurtzen dute ikasleek.

I.f) Gurasoen ogibidea dugu kontuan hartu nahi izan dugun beste aldagaia. Gehienetan irakurketa ohitura maiztasunean eragin nabarmena ez duela esan badaiten ere, bada aipatzea merezi duen zenbait xehetasun:

I.f.1 Bada joera nabarmen bat elaberriari dagokionean: langile eta nekazarien seme-alabak dira gutxien irakurtzen dutenak. Amei dagokienez, zerbitzuetako langile eta administrazio langileen seme-alabek irakurtzen dute maizen, eta aiten kasuan zerbitzuetan lan egiten dutenenak.

Bestalde, ama etxean egoteak ez dakar berarekin irakurketa maiztasun handiagoa: teknikarien seme-alabek langile eta nekazarienek adina (gutxi) irakurtzen dute, eta ez dute alde handiegirik etxekoandreenekiko.

I.f.2 Bertsoen kasuan badago datu argi bat: maizen irakurtzen dutenen gurasoak, bata etxekoandrea da (ama) eta bestea langile edo nekazaria.

I.g) Euskaldunzaharra ala euskaldunberria izateak argiro baldintzatzen du irakurketa maiztasuna: maizago irakurtzen dute euskaldunzaharrek (elaberria, ipuinak, olerkiak, antzerkiak), nahiz eta hilean zenbait aldiz ematen den irakurketan antzeko datuak topatu.

Bertso-irakurzaletasuna euskaldunzaharrena da kasu gehienetan nabarmen.

I.h) Honekin batera, gurasoen euskara-mailak gurasoen ogibideak baino eragin handiagoa duela baieztatu daiteke. Orokorrean, guraso elebidunen seme-alabek maiza-

go irakurtzen dute (bertso eta historia/kritikaren kasuan bereziki). Baieztape honen eredu elaberriari buruzko datuak ditugu: ama elebidunak irakurzaletasun handiagoa dakar ama elebakarrak baino.

Halaber, esan dezagun ipuinaren kasuan bi muturretan topa daitezkeela antzekotasunak: gurasoen euskara-maila altuak ala bajuak berdintsu eragiten du.

Azkenik, badira bi jenero zeinetan aitaren euskara mailak amarenak baino gehiago eragiten duen: olerki eta antzerkiaz ari gara.

I.i) Ikastetxea kokatua dagoen herriaren eraginaz:

Taulek argiro erakusten digute herri handietan elaberria irakurtzen dela batipat (olerkia ere bai). Bertso eta antzerki irakurleak herri txikietan aurkitzen dira. Ipuingintzaren kasuan ez dago desberdintasun nabarmenik.

I.j) Ikastetxe-motaren (ikastola, pribatua, publikoa) eraginaz:

Orokorrean orekatuenak, eta jenero desberdinetan maiztasun nabarmena mantentzen dutenak ikastoletako ikasleak ditugu.

Pribatuetakoak bertsozaleak dira nabarmenki eta publikoetako ikasleagoa da bertsoak gutxien irakurtzen dituenak. Era berean, pribatuetako ikasleak ditugu historia/kritika eta olerkia gehien irakurtzen dutenak.

Azkenik, derragun elaberriagintzari dagokionez, ikastola eta publikoetakoak aldenitu egiten direla pribatuetakoengandik, nahiz eta esan beharra dagoen, publikoetako artean ertzetako joerak (oso zaletuak/gutxi zaletuak) aurki daitezkeela.

I.k) Ikastetxean ikasle euskaldunen portzentaia altuak badu eraginik irakurzaletasunean, nahiz eta zenbait kasutan (ipuingintzaren kasuan batipat) aipatu eragin hori ez den hain handia.

I.l) Probintziaka begiraturaz, arabarrak ditugu maiztasun handiagoz irakurtzen dutenak (elaberria, bertsolaritza, antzerkia, herri literatura). Jarraian gipuzkoarrak datoz gehienetan; gipuzkoarrak dira olerkizaleenak ere, eta bizkaitarrak ipuin-zaleenak.

I.m) Azken aldagai gisara ikastetxeen tamainua jarri dugu. Honi dagokionez, ikastetxe handietan elaberria eta olerkia irakurtzen da maizago. Txikietan, historia/kritika eta bertsolaritza. Erdian ditugu ipuina eta herri literatura.

F.III. Irakurketa maiztasuna erdaraz. Aldagaien eraginaz

G.2 Irakurketa maiztasuna erdaraz

Emaitza orokorrak. Bertikalak (%)

IRAKURKETA MAIZTASUNA ERDARAZ

	ELABERRIA	IPUINAK	BERTSOAK	OLERKIAK
Egunero	8,3	2,9	0,4	0,4
Astean zenbait aldiz	24,8	17,4	2,8	3,4
Hilean zenbait aldiz	50,2	46,1	13,7	17,3
Inoiz ez	14,7	29,5	76,3	72,9
Ez daki/ez du erantzuten	1,9	4,1	6,7	6,0

	ANTZERKIA	HISTORIA.KRITIKA	HERRI LI.
Egunero	0,2	3,0	1,2
Asteazken aldiz	2,0	8,8	5,4
Hilean zenbait aldiz	21,1	22,6	26,0
Inoiz ez	70,7	59,6	61,3
Ez daki/ez du erant.	6,0	6,1	6,1

Erdaraz maiztasun handienez irakurtzen dena, berriro ere, elaberria da. Zentzu honetan interesgarria da azpimarratzea jenero honi dagozkion galderetan dituztela argien inkestatuek ideia eta erantzunak.

Bigarrenik, eta narratibaren gailentasuna azpimarratuz, ipuingintza dator, nahiz eta esan beharra dagoen, hileroko irakurketari dagokionean elaberria eta ipuingintzaren arteko kopuruak hurbildu egiten direla.

Historia/Kritikaren irakurketak darraizkie aurrekoei, baina nabarmenki aldentzen direla baieztatuz. Azkenik, bertso, olerki eta antzerkia aurrekoengandik aldentzen dira, ikaslegoaren %70ak baino gehiagok inoiz ez dituztela irakurtzen aitortzen duelarik.

Ikasketa moten aldetik (BBB, LH, IEE) esan daiteke jenero guztietan BBBkoak direla maiz irakurtzen dutenak erdaraz. Alde hau nabarmena da elaberriaren eta olerkiaren kasuan, baina antzerki, historia eta herri literaturaren kasuan hirurak pareko direla onartu behar. Bestalde, jenero guztietan maiztasun txikiena erakusten dutenak LHkoak dira, besteekiko aldea kontuan hartzekoa delarik historia/kritika eta herri literaturaren kasuetan.

Adinari begiratuz, deigarria da azken bi kurtsoetan hileroko irakurketa ohitura finkatu egiten dela elaberri, ipuin eta antzerkiaren kasuan. Dena dela, hauetan ere badirudi gazteenek irakurtzen dutela maiz.

Olerkiaren kasua desberdina da: adina handituz doan eran igo egiten baita maiztasuna.

Horrekin batera, badirudi orokorrean neskek gehiago irakurtzen dutela (elaberri, olerki, antzerkia), nahiz eta historia/kritika irakurleagoaren gehiengo mutilek osatzen duten. Ipuinen eta herri literaturaren kasuan, berriz, neska eta mutilen arteko aldea ez da hain begibistakoa.

Erdarazko irakurketa maiztasunean amaren ikasketa mailak badu bere pisua (elaberrizaletasunean batipat). Amak ikasketa profesionalak dituzten seme-alabek herri literatura, antzerkia eta ipuinak dira, eta erdi/goi mailako ikasketak dituzten amen seme-alabak historia/kritikazaleak. Aitaren ikasketek ere badute beren pisua eta normalean goi mailakoak izan ohi dira ipuin eta olerkizaletuen artean. Bestalde, erdaraz ere, etxean liburu kopuru handiagoa edukitzeak eragin positiboa du irakurzaletasunean.

Era berean, eta gurasoen ogibideak eduki dezakeen eragina neurtuz, badirudi gero eta lan kualifikatuagoa gero eta irakurketa ohitura sendoagoa ematen dela. Hau argia da elaberriaren kasuan, baina bertso edo ipuingintzaren kasuan badirudi gehienetan kontrako gertatzen dela: zaletuenen ama langilea edo nekazaria da gehienetan.

Euskaldunberri/euskaldunzahar arteko irakurketa maiztasuna desberdina den neurtzerakoan ezin esan aldeak handiak direnik, euskaldunberriak izan arren erdaraz

irakurtzeko ohitura handiena dutenak. Hala ere, ipuingintzaren kasuan euskaldunberriak dira argi eta garbi zaleatuagoak.

Gurasoen euskara-mailak ere badu zerikusirik irakurketa ohiturekin erdaraz. Horrela, argi dakusagu erdaraz irakurtzeko ohitura handia duten gazteen gurasoen euskara maila bajua izan ohi dela. Honekin batera, aipagarria da gehienetan amaren euskara-maila izan ohi dela bajua, aitarena, berriz, ulerkuntza erdi-maila batera irits daitekeelarik.

Herri handietan (+100.000 biztanle) irakurtzen da erdaraz: elaberria, ipuina, historia/kritika, herri literatura. Alabaina, antzerki edo olerkiaren kasuan bi muturretan ematen da portzentaia altuena (1-15.000biz/ +100.000 biz).

Ikastetxe motak (ikastola, pribatua, publikoa) eduki dezakeen eragina ez dago hain argi, eta gehienetan fluktuazioa ematen dela esan daiteke. Ikastoletan irakurtzen da elaberri eta antzerki gehien eta hori horrela izanik, tradizionalki euskalduna izan den ikastetxe mota honek badirudi erdarazko irakurzaletasuna ez duela txikitzen. Pribatuetan irakurtzen da historia eta bertsoarritza gehien, eta herri literatura, berriz, publikoetan. Dena dela, berriro diogu, ez dugu uste eragin zuzenagirik duen aldagaia denik.

Ikasle euskaldunen portzentaia eduki dezakeen eragina bi aldeetara ikus daiteke: batetik, portzentaia altuagoan irakurketa gehiago ematen da elaberri, olerki edo antzerkian, baina kontrako joera ematen dela esan daiteke bertso eta ipuingintzan.

Probintziak, berriro ere arabarrak ditugu zaletuenak, jarraian bizkaitarrak datozelarik. Azkenik, esan dezagun ikastetxean dagoen ikasle kopuruak ez duela eragin nabarmenik irakurketa maiztasunean erdaraz.

F.IV. Irakurketa maiztasuna euskaraz eta erdaraz.

Ondorio orokorrak alderatuz

Goian emandako datuetan ikusi ahal izan dugunez, euskaraz ematen den irakurketa maiztasuna eta erdaraz ematen dena ez dira berdinak. Jeneroka begiraturaz, elaberria maizago irakurtzen dute gure ikasle euskaldunek erdaraz euskaraz baino, eta zentzu honetan, jenero irakurriena hau izanik, badirudi atzean helburu akademikoerantzuten ez dien irakurketa estetikoak topa daitekeela, hau da, beren gisara irakurtzen dutenean gehiago irakurtzen dutela erdaraz.

Erdarazko irakurketa hau maiztasun handiagoz ematen da antzerki eta historia/kritikaren kasuan ere, eta gainerantzeko jeneroer dagokionez (ipuinak, bertsoak, olerkiak eta herri literatura) gehiago irakurtzen dituzte euskaraz. Esan beharrik ez dago datu hau espero zitekeenaren ildotik doala bertso eta herri literaturaren kasuan.

Ikasketa motak eduki dezakeen eraginaz, argi ikusi dugu BBBkoak direla zaletasun handiena erakutsi dutenak erdaraz burutzen den irakurketan. Euskarazkoetan, aldiz, gailentasun hori elaberri eta olerkiaren kasuan islatzen zen, nahiz eta IEEkoak ere zaletasun horren aldeko azaldu elaberriari dagokionean. Beste jeneroetan (ipuina eta bertsoak, adibidez) LHkoak euskaraz zaletuenak ziren bitartean, zaletasun hori ez da erdaraz mantentzen. Beraz, derragun, barxilergo ikasketak jarraitzen dituzten ikasleek erakusten dutela hizkuntza desberdinak gaindituz mantentzen den irakurketa ohitura.

Bestalde, adinak bere pisua duela ezin da ukatu. Euskarazko lanen irakurketan adinak gora egiten duen neurrian irakurketa maiztasuna jaitsi egiten bada, erdaraz antzeko zerbait gertatzen da baina ez hain modu nabarmenean. Izan ere, erdaraz burutzen diren irakurketak badirudi oreka batera iristen direla azken ikasmailetan hileroko irakurketari dagokionean. Honekin batera, azpimarragarria da, esate baterako, olerkiaren kasuan erdaraz eta euskaraz kontrako joera soma daitekeela: adinak gora egin ahala olerki gehiago irakurtzen da erdaraz eta gutxiago euskaraz.

Horrekin batera, irakurlearen sexuaz hainbat ikerketatan ikusitakoa inkesta honetan ere ziurtatu egin da nolabait: neskek maiztasun handiagoz irakurtzen dutela esan daiteke. Hau bai euskaraz, bai erdaraz begibistakoa gertatzen da elaberri, olerki eta antzerkiaren kasuan. Ipuinzaletasuna, aldiz, nahiko antzekoa dute mutilek eta neskek, nahiz euskaraz, nahiz erdaraz. Derragun azkenik, historia/kritikazaleen gehiengoa mutilek osatzen dutela bi hizkuntzetan.

Beste alderdi bat aipatzearren esan dezagun hitz pare bat gurasoen ikasketa-mailak eduki dezakeen eraginaz. Bai erdaraz, bai euskaraz, amaren ikasketa maila hobek elaberri irakurzaletasun handiagoa dakar berarekin. Ez da gauza bera gertatzen baina ipuinzaletasunari dagokionean. Izan ere, seme/alaba ipuinzaletaren atzean ikasketa maila baxuko ama egon baitaiteke, eta aita ikasia.

Beste aldagai bati helduz, dudarik ez da ikasleek etxean duten liburu-kopuruak beti duela eragin positiboa irakurzaletasunean. Beraz, kopurua handia den neurrian handiagoa da irakurzaletasuna ere (bai euskaraz, zein erdaraz).

Gurasoen ogibidea gero eta kualifikatuagoa denean hainbat eta maizago (euskaraz/erdaraz) irakurriko dituzte elaberriak, nahiz eta, bertso-irakurzaletasuna gutxiagotu egingo den (euskaraz, noski).

Badago, gainera, euskarazko eta erdarazko irakurketa-maiztasunen artean eragin nabarmena izango duen beste alderdi bat, hau da, ikaslea euskaldunzahar ala euskaldunberri izatearena. Honi dagokionean, euskaldunzaharrak dira euskaraz maizen irakurtzen dutenak, eta euskaldunberriak, aldiz, erdaraz maizen irakurtzen dutenak (nahiz eta esan beharra dagoen aldeak ez direla hain handiak).

Hizkuntza-mailarekin jarraituz, eta oraingoan gurasoen euskara-mailari begiratu, badirudi euskara maila baxua duten gurasoen seme-alabak maizago irakurtzen dutela erdaraz, eta alderatziz, guraso elebidunen seme-alabak dira maiztasun handiagoz irakurtzen dutenak euskaraz.

Herri handietan irakurketa-maiztasuna handiagoa izanik, elaberri, historia/kritika, herri literatura gehiago irakurtzen da bai euskaraz, bai erdaraz. Antzerkia, aldiz, herri txikietan izan daiteke irakurriena bi hizkuntzetan. Bukatzeko, olerkiaren inguruko xehetasun bat aipa dezagun: erdaraz herri handietan irakurtzen den bitartean, euskaraz herri oso handietan (+100.000 biztanle) edo txikietan (1/15.000 biztanle) eman daiteke.

Erdarazko irakurketa maiztasunaz geniharduenean deigarri suertatzen zitzaigun datu bat aipatzen genuen: ikastoletan irakurtzen zela elaberri gehien, nahiz eta, genioen moduan, ikastetxe mota desberdinen arteko aldeak ez ziren hain nabarmenak. Datu hori gogoratu nahi izan dugu, ezen, izan ere, euskarazko eta erdarazko irakurketa maiztasunak erkatuz, badirudi ez dagoela hainbesteko alderik, eta, horre-

gatik, aldagai hau erabatekoa ez dela baieztatu daiteke. Pribatuetakoak dira, bi hizkuntzatan historia/kritika gehien irakurtzen dutenak.

Ikastetxean ikasle euskaldunek duten portzentaiaren eragina neurtzerakoan honako hau esanez hasi beharko genuke: antzeko datuak lortu ditugula erdaraz eta euskaraz. Gauzak horrela, ikasle euskaldunen portzentaia altua den ikastetxeetan elaberri, olerki edo antzerki gehiago irakurtzen da bi hizkuntzetan, baina portzentaia hori bajua denean, ipuin gehiago irakurtzen da, bai euskaraz eta bai erdaraz. Beraz, ikasle euskaldun kopuruak ez du hizkuntza zehatz batean burututako irakurketa baldintzatzen, jenerozaletasun jakina baizik (sakonean ikastetxea kokatua dagoen herriaren tamainuak eraginik eduki dezakeela erakuts diezaguke datu honek, izan ere, ikastetxe handienak herri handietan kokatzen baitira eta txikienak txikienetan).

Probintziaka arabarrak ditugu nahiz euskaraz nahiz erdaraz maiztasun handienaz irakurtzen dutenak. Jarraian bizkaitarrak datoz erdaraz eta gipuzkoarrak euskaraz.

Azken aldagai gisa, ikastetxearen ikasle kopurua daukagu. Badirudi, ikastetxe handietan elaberri edo olerkizaletasun handiagoa ikus daitekeela bi hizkuntzetan (berriro ere ikasle euskaldun portzentaiaz ihardutean geniona gogoratu nahiko genuke).

F.V. G.4.Udan eskolatik kanpo liburu irakurrienak

Portzentaia orokorrak. Bertikalak (%)

Euskarazko liburuak	39,7
Itzulpenak euskaraz	11,0
Erdaraz (gazteleraz)	49,2

Benetan deigarri suertatzen da udan, aisiarako denbora luzeena duten garaian ematen diren irakurketa aukerei begirada bat botatzea: gure ikasleek gehiago irakurtzen dute erdaraz euskaraz baino, nahiz eta itzulpenak eta lan orijinalen irakurketa-portzentaia batuz gero, euskaraz gehiago irakurtzen dela esan daitekeen. Dena dela, portzentaia portzentai, itzulpenek duten arrakasta eskasa begibistakoa da, eta dudarik gabe zer pentsa ugari eman diezaguke, itzulitako lanei buruz eta hauen ezagutzari buruz.

Goiko portzentaia horietan aldagai desberdinek eduki dezaketen eragina neurtu beharko bagenu, honako ondorio hauetara iritsiko ginategi:

a) Ikasketa motak ez du eragin handiegirik, guztietan antzeko datuak lortzen baitira, desberdintasunak desberdintasun.

b) Erdarazko irakurketak azken ikasmilen eskutik datoz batipat, eta beraz, adinak aurrera egin ahala, badirudi euskarazko lanen irakurketa urritu egiten dela.

d) Sexuaren aldetik ezin esan gauza erabatekorik: neskak dira euskal lan orijinalak eta erdarazkoak gehien irakurtzen dituztenak; mutilek, aldiz, euskarazko itzulpenak nahiago dituzte. Gauzak ez daude, beraz, oso argi.

e) Gurasoen ikasketei begiraturaz, datu bat agertzen zaigu argi: euskal lan orijinalak nahiago dituzten ikasleen gurasoen gehiengoa ikasketarik gabekoa da.

f) Gurasoen ogibideak eduki dezakeen eragina ez da argia.

g) Ondorio argia duen aldagai bat: euskaldun zaharra ala euskaldunberria izatearena. Euskaraz irakurriko dute lehenengoek, erdaraz, batez ere, bigarrenak. Gurasoen kasuan ere eragina ildo beretik doa.

h) Erdarazko lanen irakurketa herri handietan ematen da batipat. Euskarazkoa, aldiz, 25.000-100.000 biztanletako herrietan.

i) Udan euskaraz irakurtzen duten ikasle gehienak pribatu edo publikokoak dira. Ikastoletakoek, aldiz, erdaraz irakurtzen dute gehienetan. Berrito ere tradizionalki euskalduna izan den ikastetxe mota honek erdarazko irakurketan eragin negatiborik ez duela ikusten dugu.

j) Probintziak, arabarrak ditugu, berrito ere euskal lan orijinalak gehien irakurtzen dituztenak. Bizkaitarrak itzulpen zaletuenak. Nafarrak eta gipuzkoarrak erdarazko lanak gehien irakurtzen dituztenak.

k) Ikastetxe tamainuaren eragina ez da erabatekoa.

F.VI. (G.4) Udan eskolatik kanpo irakurritako autoreak

- Euskal idazleak (guztira 26 egiletako zerrenda):

1	Bernardo Atxaga	% 6,8
2	Beste Euskal Autoreak	% 6,7
3	Gotzon Garate	% 6,0
4	Arantxa Urretabizkaia	% 2,8
5	Ramon Saizarbitoria	% 2,2
6	Kirikiño	% 1,8
7	Anjel Lertxundi	% 1,8
8	Xabier Gereño	% 1,6
9	Joseba Sarrionaindia	% 1,2
10	Pako Aristi	% 1,2

- Euskarara itzultitakoak (guztira 24 egiletako zerrenda):

1	Beste autoreak	% 3,4
2	Goscinnny	% 1,2
3	Higsmith, Patricia	% 1,1
4	Blyton, Enid	% 1,1
5	Verne, Jules	% 0,9
6	Cain, James M.	% 0,3
7	Twain, Mark	% 0,3
8	Salgari, Emilio	% 0,3
9	Jürgen	% 0,3
10	Orwell, George	% 0,3

- Gazteleraz irakurtzen dituzten autoreak (guztira 52 egiletako zerrenda):

1	Atzerriko beste autoreak	% 19,2
2	Christie, Agatha	% 4,9
3	Espainiako beste autoreak	% 4,0
4	King, Stephen	% 3,0

5	Andrews	%	1,5
6	Tolkien	%	1,4
7	Hichcock	%	1,2
8	Ende, Michael	%	1,0
9	Hinton, Susan	%	1,0
10	Verne, Jules	%	0,9

- Itzulitako euskal liburuetan eta gazteleraz irakurtzen dituztenetan errepikatzen diren egileak:

*	Blyton (4.a euskaraz / 13-14. gazteleraz)
*	Cain (6.a euskaraz /azkenetakoa gazteleraz)
*	C. Doyle (azkenetakoa bi hizkuntzatan)
*	Green (azkenetakoa bi hizkuntzatan)
*	Gripe, M.(azkenetakoa euskaraz /19.a edo gazteleraz)
*	Hesse, H.(azkenetakoa bi hizkuntzatan)
*	Higsmith, P.(azkenetakoa bi hizkuntzatan)
*	Hinton, S. (3.a euskaraz/ 9.a edo gazteleraz)
*	London, J.(azkenetakoa bi hizkuntzatan)
*	Orwell, G.(10.a euskaraz/azkenetakoa gazteleraz)

- Idazle espainiarrak:

Baroja	%	0,5
Benitez	%	0,4
Cela	%	0,3
Delibes	%	0,5
Luca de Tena	%	0,3
Mendoza	%	0,2
Vigil	%	0,5
Vazquez Figueroa	%	0,8

Zerrenda hauek nahiko adierazgarri direla uste badugu ere, argigarri gerta litekeen zenbait ohar egin nahiko genuke.

Batetik, prosagileen ia erabateko gehiengoa bai euskaraz bai erdaraz. Euskarazkoetan Lizardi, Aresti, Lekuona, Mirande eta Sarrionaindia izango genituzke 26 egilez osatutako zerrenda horretan salbuespen bakarrak (kontuan hartu, bestalde, multzo horretan Lekuona dugula poesia soilik argitaratu duena). Euskal itzulpenen eta gaztelerazko irakurketen kasuan prosagileen kopurua erabatekoa suertatzen da, ikasleek duten narratibarenganako zaletasunaren frogagarri. Honekin batera, azpimarra dezagun zerrenda hauetan (itzulpen eta gaztelerazko egileen zerrendetan batez ere) "idazle klasiko" edo dei dakiekeen elaberriagileen urritasuna. Goraxeago ipini dugun Espainiako idazle zerrenda horretan ikusi denez, mende honetako prosagileak soilik agertzen dira, eta horien artean Baroja dugu zaharrena.

Bestetik, eta honako honetan, irakurleen sexuari begiratuz, jakina da, inkestaren

emaitzen azterketa osoan horrela ikusi dugulako, neskak direla gehien irakurtzen dutenak. Baina, zenbait egileren kasuan kopuruak aldatu egiten dira eta mutilak suertatzen dira zaletuenak. Hona ondoren esaten ari garenen adibideak:

1) Euskal egileen artean neskek nabarmenki gogokoago dituzte: Amuriza, Aristi, Garate, Haranburu-Altuna, Irigoien, Iturralde, Kirikiño, Lizardi (alde handiz), Mendizabal, Mirande, Saizarbitoria, Txillardegi, Urretabizkaia, Zabaleta, Zarate.

Nesken eta mutilen arteko aldea ez da aurrekoen kasuan bezain nabarmena: Atxaga, Aresti, Etxaide, Gereño, Lertxundi eta Sarrionaindiaren kasuan.

Azkenik, mutilek neskek baino gogokoago dituzte: Agirre, Kintana eta Ormazabal.

2) Euskarara itzulitako egileen artean neskek mutilek baino gogokoago dituzte: Blyton, Cain, Green, Gripe, Highsmith, Hinton, Jurgen, Orwell, Pedrolo eta Stowe.

Talde berean mutilek gustorago irakurtzen dituzten egileak honako hauek dira: Canela, Gosciny, Hemingway, Hesse, Kurtz, London, Salgari, Steinbeck, Stevenson, Twain, Verne eta Zimnik.

3) Inkestan bereizi dugun azken taldea gaztekeraz irakurri dituzten liburuen egileena da. Zerrenda honetan 52 idazle bereizten direlarik, aipatuko ditugunak mutilen gustokoenak dira (beste guztietan neskek osatzen bait dute irakurlegoaren gehiengoa): Asimov, Benitez, C. Doyle, Fast, Hawking, Hishcock, London, Lovecraft, Salgari, Stevenson, Tolkien, Twain, Verne eta Vazquez Figueroa.

Gure iritzi apalean zerrenda horietan mutilek ala neskek egiten duten aukeran badirudi, topikoa den gertakari baten oihartzuna ikus daitekeela, hau da, mutilek nahiago dituzte ekintza askoko elaberriak, neskek, aldiz, gehiago jotzen dute giza-sentimenduen garazkez hitzegiten diguten elaberrietara.

F.VII. (G.4.) Udan eskolatik kanpo irakurritako liburu kopurua

Orain artean udan, eskolatik kanpo ikasleek irakurtzen dituzten egileak eta zein hizkuntzatan irakurtzen dituzten ikusi ahal izan badugu, orain irakurketa horrek bere gain hartzen duen liburu kopuruaz ihardungo dugu.

Hauek ditugu, beraz, portzentaia orokorrak:

0 liburu	% 25,4
liburu 1	% 13,9
2 liburu	% 15,1
3 liburu	% 14,6
4 liburu	% 11,8
5 edo gehiago	% 19,2

Dakusagunez, desberdintasun handienak ertzetan ematen dira, hau da, irakurtzen ez dutenen eta bost liburu baino gehiago irakurtzen dituztenen artean. Tartean ikus daitezkeen portzentaiekin artean (liburu 1etik 4 liburutara) ez dago desberdintasun handiegirik. Dena dela, eta datuak aurrean hartzen ditugularik, udako irakurketa-maila nahikoa altua dela esan daiteke, ikaslekoaren laurdena soilik baitugu batere libururik irakurtzen ez duena. Honekin batera, aipagarri da ikaslekoaren ia %20ak

bost liburu baino gehiago irakurtzen dituela udan, eta egia esatekotan, gure gazte-riaren aisiaz ditugun datuei begiratuz ez dago batere gaizki.⁷

Udan burutzen den irakurketa horretan, aldagai desberdinen eragina neurtuko bagenu honako ondorio hauetara iritsiko ginategi:

a) Udan gehien irakurtzen duten ikasleak BBBkoak dira eta ondoren IEEkoak; gutxien irakurtzen dutenak, aldiz, LHkoak ditugu, izan ere, hauen arteko %52,8ak ez baitu ezer irakurtzen. Honekin batera, aipatzekoa da BBBkoek besteekiko duten aldea handitu egiten dela hiru liburutik gora, eta zentzu honetan, esanguratsua da, BBBko ikaslegoaren %21,8ak bost liburu baino gehiago irakurtzen duela.

b) Goikoarekin batera, neskak ditugu udan ere gehien irakurtzen dutenak, eta horrela, mutilen %32,8ak liburu bakar bat irakurtzen ez duen bitartean nesken %18,6a da kasu berean dagoena. Halaber, esan dezagun nesken eta mutilen arteko portzentaia aldeak handituz doazela liburu kopuruak gora egin ahala.

d) Udako irakurketa hauetan eragin argia du gurasoen prestakuntza mailak ere. Argi eta garbi ikusten da gurasoen ikasketa-mailak gora egin ahala liburu gehiago irakurtzen dutela ikasleek (eta gutxiago, kontrako kasuan). Alabaina, gurasoen ogibideak ez dauka maila bereko eraginik. Kasu hauetan gurasoen lan kualifikatuagoak ez dakar berarekin irakurketa gehiago.

e) Beti bezala, etxeko liburuen kopuruak gora egin ahala irakurketak ere gora egiten du.

f) Beste aldagai batera igaroaz, esan dezagun euskaldun zaharrek liburu gutxiago irakurtzen dutela (0,1,2) euskaldun berriek baino (3,4,5, +5).

Honekin batera, gurasoen euskara mailari begiratuz, argi ikusten da gurasoen euskara mailak gora egin ahala liburu gehiago irakurtzen dituela ikasleak.

g) Herri txikietan liburu gutxiago irakurtzen da herri handietan baino (seguraski liburuak eskuragarriagoak izateak bere eragina izango du hemen).

h) Ikastetxe mota desberdinei dagokionean, publikoetan bi joerak topa daitezkeen bitartean (asko irakurtzen dutenak eta gutxi irakurtzen dutenak), ikastola eta pribatuetakoa ikasleak orekatuago irakurtzen dute. Dena dela, batzuen eta besteen arteko aldeak handiak ez direla esan behar.

i) Probintziak begiratuz, arabarrak ditugu gehien irakurtzen dutenak (%34ak bost liburu baino gehiago arabarren kasuan, eta %15,9ak gipuzkoarren kasuan). Hala ere, esan beharra dago tartean ematen diren portzentaia (hau da, 2,3,4 libururi buruzkoak) antzekoak direla probintzia guztietan.

(7) Azken urteetan gure gazteriaz egin diren ikerketa desberdinen artean aipagarrienak 1990ean Deiker Institutuak Deustuko Unibertsitatearekin batera egin zuen *Jóvenes vascos 1990* eta 1985ean Eusko Jaurlaritzako Lan Osasunketa eta Gizarte Segurantzza Sailak Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan egindako *Psicosociología del adolescente vasco* ditugu.

Lehenengoan EAEko 15-29 urte bitarteko 2.282 gazteri inkesta egin zitzairen eta bertan datu bitxiak lortu ziren. Hauen artean, euskal gazteek Espainiakoek baino egunkari gehiago irakurtzen dutela esaten zaigu. Baina liburuen irakurketari dagokionez, argi dago beste ekinza batzuk nahiago dituztela bere aisialdirako:

1) Etxean musika entzun	3) Puketara, diskoteketara joan	%40ak inguru.
2) Taberna taberna ibili	4) Liburuak irakurri	
	5) Kalean egon	

j) Azkenik, esan dezagun ikastetxe txikietako ikasleek gutxiago irakurtzen dutela handietakoek baino.

F.VIII. (G.5) Gutxien/gehien gustatzen zaizkien elaberri motak

Gutxien gustatzen zaizkien elaberri motak. Totalak. Bertikalak (%):

Abenturazkoak	% 2,6
Zientzia Fikziozkoak	% 15,8
Erotikoak	% 11,2
Historikoak	% 16,7
Arazo sozio-politik.	% 22,3
Poliziazkoak	% 5,8
Misteriozkoak	% 2,3
Existenzialistak	% 22,7
Ez daki/ez du erantz.	% 0,5

Beraz, gutxien gustatzen zaizkien elaberri motak existenzialistak, arazo sozio-politikoei buruzkoak (elaberri sozialak) eta historikoak dira.

Gehien gustatzen zaizkien elaberri-motak. Totalak. Bertikalak (%).

Abenturazkoak	% 24,8
Zientzia fikziozkoak	% 8,1
Erotikoak	% 8,6
Historikoak	% 6,5
Arazo sozio-politi.	% 6,7
Poliziakoak	% 15,0
Misteriozkoak	% 25,0
Existenzialistak	% 5,2
Ez daki/ez du erantz.	% 0,1

Dakusagunez gehien gustatzen zaizkien elaberri-motak abenturazkoak, misteriozkoak eta poliziakoak dira.

Jarraian, aldagai desberdinen eraginaz esan ditzagun hitz bi:

a) Ikasketa mota desberdinek zaletasunean eduki dezaketen eragina ez da hain argia eta portzentaiak antzekoak direla esan behar. Bi kasutan esan daiteke LHkoak besteengandik aldentzen direla: elaberri erotikoaren kasuan (besteei baino gehiago gustatzen zaizkie) eta arazo sozio-politikoei buruzko elaberrietan (besteei baino gutxiago gustatzen zaizkie). Beraz, badirudi ikasketa motak baino eragin handiagoa eduki dezakeela adinak.

b) Elaberri mota desberdinekiko zaletasunean ikaslearen kurtsoak edo mailak eduki dezakeen eragina askotan ez da hain argi ikusten, fluktuazioak daudelako. Dena dela, zenbait elaberri motaren kasuan badira joera amankomunak. Esate baterako, ikasmilak gora egin ahala zientzia fikziozko elaberriak, elaberri erotikoak eta elaberri historikoekiko zaletasuna handitu egiten da. Baina abenturazko eta misteriozko elaberrien kasuan jaitsi egiten da.

d) Mutilei gehiago gustatzen zaizkie abenturazkoak (antzeratsu), zientzia fikziozkoak, erotikoak, historikoak (antzeratsu) eta poliziakoak. Nesken gustokoak dira, berriz, arazo sozio-politikoak buruzkoak, misteriozkoak eta existentzialista/psikologikoak. Ondorioa begibistakoa da: abenturazko elaberriak ezik, ekintzazko elaberriak mutilen gustokoak diren bitartean, neskei gustatzen zaizkienak elaberri estatiokoak dira, gatazka sozialak eta indibidualak azaltzen dituztenak.

F.IX (G.6) Liburuak aukeratzekoan kontuan hartzen diren alderdiak

Datu totalak. Bertikalak (%)

Titulua	% 23,9
Egilea	% 14,0
Euskaraz egotea	% 9,8
Liburuaren itxura	% 10,2
Irakasleen iritzia	% 7,6
Kritika	% 9,7
Jenderaren iritzia	% 24,4
Ez daki/ez du eran.	% 0,4

Esan daiteke, liburu bat aukeratzekoan ikasleak kontuan hartzen dituen alderdiak: jendearen iritzia, titulua eta egilearen izena direla. Pisurik txikiena daukana irakaslearen iritzia da eta jarraian, bata bestearen pareko euskaraz idatzia egotea eta kritika; liburuaren itxura berriz, erdian geratzen den alderdia dugu. Hemen ikusten da irakurleen arteko iruzkinek duten pisua elaberri bat aukeratzekoan, esan daiteke, irakurleak gehienetan ideia oso argi batekin eskuratzen duela liburuak: lagunei gustatu zaiela badakielako, edo bestela, egilearen berri jakinik horrela erabaki duelako.

FX. (G.6) Liburuak aukeratzekoan kontuan hartzen ez diren alderdiak

Datu totalak. Bertikalak (%)

Titulua	% 8,6
Egilea	% 16,7
Euskaraz egotea	% 12,4
Liburuaren itxura	% 22,7
Irakasleen iritzia	% 13,6
Kritika	% 17,5
Jendearen iritzia	% 7,3
Ez daki/ez du eran.	% 1,1

Argi dago, orduan, irakurleak gutxien hartzen duena kontuan: liburuaren itxura, kritika eta egilea direla. Beraz, gorago esan dugunera itzuliz, badirudi ikasleak egilea kontuan hartzen duela batzutan eta bestetan ez. Itxuraz kontradikzioz bete da dagoen jokaera bikoitz honen atzean badirudi honako hau ulertu beharko genukeela: ikasleak egilea kontuan hartzen du irakurtzera doanaren berri duenean, baina ez du kontuan hartzen irakurtzera doan horri buruzko inongo daturik ez duenean.

F.XI. (G.7) Aukeraturako tituluak

Totalak. Bertikalak (%)

<i>Peter Smith Amazonetan</i>	% 12,4
<i>Luluren gau lizunak Turkian</i>	% 9,3
<i>Zumalakarregiren azken irteera</i>	% 7,5
<i>Douglas inspektorea biltzailearen atzetik</i>	% 19,9
<i>Iraultzaren ateetan</i>	% 11,6
<i>Ezinegona</i>	% 13,7
<i>Piramide sorginduaren sekretua</i>	% 25,3
<i>Ez daki/ez du erantzuten</i>	% 0,4

Honako lehenengo hiru titulu hauek dira aukeratuena: "Piramide..." (misteriozkoa), "Douglas inspektorea..." (poliziakoa) eta "Ezinegona" (existentzialista/psikologikoa) (oso gerturik darriolarik "Peter Smith..." abenturazkoak).

F.XII (G.7) Aukeraturako ez lituzketen tituluak

Totalak. Bertikalak (%)

<i>Peter Smith Amazonetan</i>	% 10,5
<i>Luluren gau lizunak Turkian</i>	% 18,5
<i>Zumalakarregiren azken irteera</i>	% 21,0
<i>Douglas inspektorea biltzailearen atzetik</i>	% 7,9
<i>Iraultzaren ateetan</i>	% 19,6
<i>Ezinegona</i>	% 14,0
<i>Piramide sorginduaren sekretua</i>	% 7,5
<i>Ez daki/ez du erantzuten</i>	% 1,0

Emaitzen arabera aukeraturako ez lituzketen hiru tituluak hauexek liriateke: "Zumalakarregiren..." (historikoa), "Iraultzaren ateetan..." (arazo sozio-politikoei buruzkoa) eta "Luluren gau ..." (erotikoa). Ikus daitekeenez, emaitza hauek bat datoz lehenago aukeraturako lituzketen tituluei buruzkoekin. Hanka sartzeko arrisku handiegirik gabe esan daiteke gure gazteen zaletasunak misterizko elaberrien eta elaberri poliziakoen ildotik doazela; honekin batera, elaberri historikoak eta sozialak, errealtatearekin zerikusirik eduki dezaketenak, beraz, ez dira beraien gogoko.

Honekin batera, aipagarria dateke titulu aukeraketa honetan azaldu zaigun beste datu bat: elaberri existentzialista/psikologikoaren aukeraketa alegia ("Ezinegona" titulupean). Harrigarria suertatzen da aukera hau lehenago gogokoan zituzten elaberri-motei zegozkien datuei begiratu. Taula honetan elaberri existentzialistak gutxien gustatzen zitzaizkienak ziren eta, beraz, emaitza honek zera eman diezaguke adieraztera: titulu horren atzean ez dutela gai horretako elaberririk identifikatu edo eta teoriar gorrotatzen dituzten elaberri mota horiek (klasean edo eduki duten esperientziarengatik, agian) gogoko dituztela praktikan (hipotesi nahiko sinesgaitza).

F.XIII (G.8) Euskaraz irakurri dituzten egile desberdinetatik gehien gustatu zaizkien bostak:

Euskal egile/beste egile portzentaia totalak. Bertikalak (%).

Euskal egileak	% 95,4
Beste egileak	% 4,1

Gehien gustatu zaizkien euskal HAMAR egileak (%)

Atxaga	% 14,4
Garate	% 12,6
Urretabizkaia	% 7,4
Saizarbitoria	% 7,3
Lertxundi	% 7,1
Sarrionaindia	% 5,2
Gereño	% 4,0
Aristi	% 3,9
Zabaleta	% 3,4
Txillardegi	% 3,1

Berriro ere, aipagarria da ikasleen erantzunekin osatutako zerrenda honetan 25 egileetatik gehiengo nabarmena prosagileak direla. Azaltzen diren egileen artean honako hauek bakarrik idatzi dute noizbait poesia: Aresti, Lekuona, Lizardi, Mirande eta Sarrionaindia.

Gehien gustatu zaizkien euskarara itzulitako HAMAR egileak (%)

Verne	% 0,7
Gosciny	% 0,3
Blyton	% 0,3
Steinbeck	% 0,3
Hinton	% 0,3
Jurgen	% 0,1
London	% 0,1
Green	% 0,1
Kurtz	% 0,1
Stowe	% 0,1

Hemen ere, lehen gertatu den bezala, prosagileen gehiengo erabatekoa da (24 idazletako zerrendan).

F.XIV (G.9) Euskaraz irakurtzen dituzten liburuak non lortzen dituzten

Etxeko liburutegian	% 15,5
Ikastetxeko liburutegian	% 12,0
Liburutegi publikoetan	% 15,4
Lagunek utzita	% 19,9
Familiakoek utzita	% 11,6
Erosiak	% 22,1
Ez daki/ez du erantzuten	% 3,4

Liburudendetan erositako liburuak du, antza denez, pisurik handiena. Honi dagokionean, aipagarria da ikaslegoaren ia laurdenak liburuak erosi egiten dituela eta portzentaia honetatik oso gertu daude elkarri utziz lortutako liburuena. Ez du jende gehiegik liburuak erosten, kontuan hartzen bada liburutegi desberdinetan (etxekoa kenduta) lortzen dituztenen kopurua. Liburutegi desberdinetan lortzen dutenak batuz gero % 27,4a bakarrik daukagu, eta beraz, badirudi liburutegietara jende gutxi joaten dela, liburuak beste bidetatik lortuz. Egia esan, krisi garai hauetarako ez da hain portzentaia bajua erosleena (nahiz eta seguru gauden liburu saltzaileen iritzia bestelakoa izango dena).

F.XV (G.10) Eskolan irakurtzeko agindutako liburuei buruzko eritzia

Oso interesgarriak	% 6,6
Nahiko interesgarriak	% 65,2
Gutxi interesgarriak	% 20,1
Batere interesgarriak	% 7,5
Ez daki/ez du erantzuten	% 0,7

Gehiengoaren iritziak irakurritakoari nahiko interesgarri erizteak ondorio positibotzat har daitekeelakoan gaude. Bestalde, iritzi negatiboenak batuz ikaslegoaren ia heren batera iristen gara, portzentaia ez oso bajua gure ustez.

Irakurketa kontu hauetan betiere iritzi edo zaletasun aldekoena bilatu behar dugun ustetik abiatuz, eskolan agintzen zaizkien irakurketak gustokoak suertatzea ezinbesteko da. Gauzak horrela, irakaskuntza sistimak literaturzaletasuna pizteko eduki ditzakeen akatsak onartuz (ordutegi beteegiak, ikasle kopuru handiegia geletan, literatura curriculumak hobetzeko gai bat gehiago gisa ulertua egotea,...), badirudi goian azaldu zaigun portzentaia hori nahiko errespetagarri suertatzen dela.

F.XVI (G.11) Jarraian datozen baieztapenekiko ikasleen iritzia

G.11A "Eskolan jaso ditudan euskal literatura-klaseek literatura zer den bobeto ulertzen lagundu didate"

Ados	% 72,8
Ez-ados	% 26,1
Ez daki/ez du erantzuten	% 1,1

G.11B "Eskolako euskal literaturako klaseek euskal literatura gehiago irakurtzera bultzatu nauten"

Ados	% 43,6
Ez ados	% 55,4
Ez daki/ez du erantzuten	% 1,0

G.11C "Euskal literatura klaseek nire euskara-maila hobetzen lagundu didate"

Ados	% 76,7
Ez ados	% 22,3
Ez daki/ez du erantzuten	% 1,1

G11D "Euskal Literatura klaseek Euskal Herriaren nortasuna hobeto ulertzen lagundu didate"

Ados	% 69,1
Ez ados	% 29,1
Ez daki/ez du erantzuten	% 1,9

Benetan interesgarri suertatzen zaizkigu eskolan jasotako Euskal Literatura klaseei buruzko galderen erantzunak. Badirudi, klase hauen helburua informatiboa/didaktikoa dela batipat, eta horregatik, Euskal Literatura hobeto ulertzen laguntzen dutela. Helburu didaktiko bera erakusten du klaseei ikusten zaien onura linguistikoak ere. Literatura klaseei esker ikasleak bere euskara-maila hobetu ezezik Euskal Herriaren nortasuna ere hobeki ulertzen du.

Aipatu erantzun horiek 11b izendatu dugun galderari emandako erantzuna indartu besterik ez dute egiten: Euskal Literatura klaseek ez dute irakurzaletasunik sortzen ikasleengan, ez dute literatura gehiago irakurtzeko irrikarik eragiten. Informazio-formazio dikotomiak esplikatu luke, beraz, klase hauen zeregin behinena?

F.XVII (G.12) Euskal literatura irakurtzea... da

Entretenigarria	% 18,8
Hezitzailea	% 32,1
Interesgarria	% 38,0
Aspergarria	% 9,4
Alferrikakoa	% 1,2
Ez daki/ez du erantzuten	% 0,4

Erantzun hauen artean literatura-irakurketari "entretenigarri/aspergarri" eriztea dateke, seguraski, irakurketa estetikoari egokien dagozkion adjetiboak. Hau da, irakurriz gozatu eta gustora sentitzea eskatzen diogu eskuratzen dugun liburu orori. Zentzu honetan ikaslegoaren %18,8ak bakarrik erizten dio entretenigarri gure literaturari (%9,4ak aspergarri erizten dion bitartean). Gehiengoak interesgarri erizten diola esan behar (ia %40ak). Adjetibo hau ez da ez negatiboa, eta nolabaiteko zaletasuna adieraz lezakeela onartu behar.

Alabaina, gure zalantzak ditugu "interesgarri" horren atzean egon litezkeen literatur helburuez. Honen ondoan, zalantzarako aukerarik uzten ez duena "hezitzailea" adjetiboa dugu, ikaslegoaren zati handi batek aukeratutakoa (%38,0ak, hain zuzen), eta nahikoa argi eman dezake ikasleek dituzten usteez. Ezin da ahaztu inkestatuen populazioa ikaslez osatua egoteak Literaturari buruz, eta ondorioz, irakurketa literarioari buruz jarrera batzuk baldintzatzen dituela. Zentzu honetan, oso literarioa ez izan arren, ikasleek literatura klaseak "hezitzaileak" direla pentsatzeak, helburu estetikotik aldentzen den jarrera erakutsi besterik ez digute egiten.

F.XVIII (G.13) Zer iruditzen zaizu euskal literatura?

Euskal Literatura beste hizkuntzatan idatzitako Literatura baino interesgarriagoa da	% 14,8
Euskal Literatura beste hizkuntzatan idatzitako Literatura bezain interesgarria da	% 67,6
Euskal Literatura ez da beste hizkuntzatan idatzitako Literatura bezain interesgarria	% 15,1
Euskal Literatura ez da interesgarria	% 1,9
Ez daki/ez du erantzuten	% 0,6

Egia esan, ez dira oso emaitza txarrak, itxaropentsuak direla esatekotan gaude. Gure ikasleen bi herenek Euskal Literatura beste hizkuntzatan idatzitakoa bezain interesgarri dela pentsatzen du, eta honi dagokionean badirudi hizkuntzak ez duela literaturzaletasun zehatz bat baldintzatzen. Zera esan nahi dugu, gure literatura beste hizkuntzatan idatzitakoa bezain interesgarri dela pentsatzeak literatura hori idatzita dagoen hizkuntza gainditzea da.

Honekin batera, aipagarria da ia portzentaia beretsuan ikaslegoaren zati batek interesgarriago erizten diola gure literaturari, beste zatiak hain interesgarri erizten ez dion bitartean.

Azkenik, gogora dezagun ikaslegoaren oso portzentaia txiki batek pentsatzen duela Euskal Literatura ez dela interesgarri, ia aipatzea ere merezi ez duen portzentaia hau.

F.XIX (G.14) Euskal gizartean zer garrantzi dauka euskaraz irakurtzeak?

Garrantzi handia dauka	% 72,3
Nahiko garrantzi dauka	% 22,8
Garrantzi gutxi dauka	% 3,2
Ez dauka garrantzirik	% 0,8
Ez daki/ez du erantzuten	% 0,8

Galdera hau egin genuenean gure helburua ikaslearen motibazioen berri edukitzea zen, eta neurri batean, motibazio hori estetiko-literarioa ala bestelakoa zen jakin nahi genuke. Egia esan, benetan adjetibo desegokia erabili genuen nahita Euskal Literaturaren irakurketa definitzerakoan, izan ere, gaurregunean irakurtzeak garrantzi handia daukala esaterakoan ikusi beharko bailitzateke zenbat edukiko genituzkeen baieztapen horrekin ados. Badirudi, gero eta jende talde mugatuagoak defendatzen duela mende bukaera honetan irakurketa, eta orokorrigo, liburuaren garrantzia gure gizartean.

Hala ere, teoriar adjetibo desegoki hori gure hizkuntzari egokitzen zaionean badirudi zentzua aldatu egiten dela, eta horren frogagarri, begiratu besterik ez dago emaitzei. Ikaslegoaren ia hiru laurdenek euskaraz irakurtzea euskal gizartean garrantzi handikoa dela pentsatzen dute, eta honekin, gure iritiz, gure hizkuntzarekiko kezka besterik ez dute erakusten. Ikusi behar litzateke galdera hori beste modura planteiatuz gero zeintzu izango liratekeen erantzunak. Hau da, zera esan nahi dugu, garrantzia duena, emaitzen arabera, euskaraz irakurtzea da, ez irakurketa bera, eta

gure ikasleagoak jakin badaki hainbat aldiz defendatutako baieztapenaren mezua: "erabiltzen ez den hizkuntza bat desagertu egiten da". Erabilera horretan irakurketak (berarekin idazketa baitarama) duen pisua ezinukatuzkoa da.

Azken hitzak. Emaitzen gainean eginiko hainbat gogoeta

Azken puntu honetan ez genuke berriro inkestaren emaitzak errepikatzerik nahi. Hau egin ordez, inkesta honen emaitzek sortarazten diguten hainbat hausnarketa edo erreflesio egitera mugatuko gara.

Elaberria

Lehenengo eta behin, esan dezagun, jeneroei dagokien ondorioetan nabarmena dela elaberriaren gailentasuna. Elaberria dugu ikasleek maizen irakurtzen duten jeneroa bai euskaraz eta bai erdaraz (gogoratu %23,3ak astean zenbait aldiz eta %56,5ak hilean zenbait aldiz irakurtzen duela euskaraz; erdarazko elaberrien kasuan asteroko maiztasuna %24,8ra igotzen delarik eta hilerokoa %50,2koa delarik), eta gertuen darraion jeneroa narrazio laburra da.

Zentzu honetan, esan beharra dago, emaitza hau espero zitekeenaren barruan dagoela, izan ere, euskal liburugintza produkzioari begiratu gero, esate baterako, 1991ean elaberriak osatzen zuen literaturan argitaratutako %38a, gertutik zerraiolarik narrazio laburrak %23,4arekin.

Alabaina, elaberriaren gailentasun hau hizkuntza desberdinetan nola ematen den aztertuz gero, badirudi, nahiz eta bien arteko aldeak handiak ez izan, erdaraz maiztasun handiagoz irakurtzen dutela. Halaber esan daiteke antzerki eta historia/kritikaz.

Bestalde, beste jeneroei begiratu, aurrekoekiko aldeak nabarmenak direla esan behar. Bertsoak, olerkiak eta herri literatura euskaraz erdaraz baino maizago irakurtzen badira ere, gogora dezagun, esate baterako, olerkiei zegokienean ikasleagoaren %66,8ak ez zituela inoiz irakurtzen. Hori zela eta inkestan desberdintzen genituen 7 jeneroetan 5-6. lekua betetzen zuen olerkigintzak.⁸

Jeneroei buruzko gogoeta hauetan antzerkiak ikasleagoaren baitan dituen irakurle urriak gogoratu nahiko genuke.

Baina elaberriarekin hasi garelarik jarrai dezagun berarekin. Inkesta honetan bazegoen galdera pare bat elaberria mota desberdinekiko zaletasunari zegokiona. Ondorioak oso argiak izan dira: abenturazkoak, misteriozkoak eta elaberri poliziazkoak dira ikasleen gogokenak. Badirudi irakurle gazteek beste eremutara eramango dituzten elaberriak dituztela gogoko. Henry Jamesen esanak bere eginez, elaberriak, lehenengo eta behin gustoko eta dibertigarri behar du izan, irakurleagoaren irakurtzeko grina mantenduko duena.

Zaletasun horiek urteak gora egin ahala aldatzen badira ere (argi ikusi dugu ikasle zaharrenek ez dituztela hain gogoko abentura eta misteriozko elaberriak, horien ordez, elaberria historiko edo zientzia fikziozkoak irakurtzen dituztelarik),

(8) Datu hau euskal liburu produkzioarekin ez dator bat. Berriro ere 1991eko liburugintza-datuei begiratu, olerkiari zegokion literatur produkzioaren %14a. Bertsoigintzari, aldiz, %6,5a zegokion, eta, ikusi dugunez, gogoken dituzten jeneroen artean hirugarren lekua betetzen dute bertsoek.

tradizionalki "gazte-literatura" deritzonaren ezaugarri berezkoenak dira. Eta "gazte-literatura" aipatu dugunez, gogora dezagun ikasleek udan (aisialdirako denbora luzeana duten aldian) irakurtzen dituzten liburuei buruz galdetzean literatura mota honetan kokatu izan diren egileen izen zerrenda luze batez erantzuten zitzaigula.

Esandakoaren frogagarri, euskarara itzulitako egileen artean udan irakurtzen zituztenak Patricia Highsmith, Jules Verne, James M. Cain, Emilio Salgari topatzen ditugu, edo gaztelaraz irakurtzen dituztenen artean: Agatha Christie, Stephen King, Andrews, Tolkien, Michael Ende, Susan Hinton.

Zerrenda horiek ikusi ondoren, hainbat gogoeta datorkigu burura:

1) Batetik, euskal egileez osaturiko zerrendarekin duten desberdintasuna. Gogoratu euskaraz udan irakurtzen dituztenen artean Atxaga, Garate, Urretabizkaia, Sazarbitoria, Kirikiño, Lertxundi, Gereño, Sairrionaindia eta Pako Aristi ditugula. Eta idazle hauen elaberri motak eta lehenago aipatutakoenak ez dira inondik ere berdinak. Esan daiteke, Garate eta Gereño kenduta, ikasleen zaletasunetik urrun dauden elaberriak idazten dituztela.

Agian horregatik izango da udan ikasleek gehiago irakurtzea gaztelaraz euskaraz baino. Baina hain erraz ulertzen ez dena udako irakurketa horietan euskarara itzulitako elaberriek duten arrakasta urria da, bertan errazago aurki baitezake ikasleak topatzen duen elaberri mota.

Zentzu honetan, nahiko harrigarri suertatzen da ezagutza falta hori, baldin eta haur-gazte literaturaren zatirik handiena itzulpen lanek osatzen badute (1991ean haur eta gazte literaturaren %62a itzulpenak ziren). Beraz produzitu egiten da, baina ikaslearen eskuetara ez da eskaintza horren oparotasuna iristen.

Gertakari horrek indar gehiago hartzen du, udan irakurtzen dituzten itzulpen urri horiek begiratu ondoren gehienak aspaldian itzulitako lanak direla ikustean.⁹

Hau da, zera eman nahi dugu aditzera, gure inpresio apalean ikasleak ez daukala azkenaldian argitaratutako itzulpenen berri. Eta hau badiogu benetan itzulpen interesgarri eta gustagarriak daudela pentsatzen dugulako da. Euskal liburutegietara hurbiltzen den edonork gaztelarazko irakurle asko harrituko lituzkeen itzulpenak topa ditzake hainbat bildumatan (propaganda gehiegirik egin gabe, Igela-ren Sail beltza, edo Ibaizabalen Klasikoen itzulpenak, edo eta Erein-en Auskalo Saila, edo eta Elkar-en Itzul eta Branka Sailak).

Gauzak horrela, gure iritziz, argitaratzen diren liburu berrien informazio zuzenagoa lortzeko bide berriak ireki beharko lirakeke. Izan ere, arazo honen aurrean maiz eman ohi den aitzakia (irakasleek ez dizkiete irakurgai berriak agintzen ikasleei) ez baitzaigu baliogarria (edo nahikoa) iruditzen. Errazegia deritzogu irakurketa aukera honen erantzunkizuna irakasleengan soilik dagoela esateari, izan ere, eguneroko lanean (heziketean) ez aspertzeko adinako lana baitauka irakasleak, eta bestalde, eskola-tik ihes egin behar baitu irakurketak.

(9) Egia esan euskal literaturan ezin da "aspaldi" hitza erabili, baina hori diogunean zera eman nahi dugu aditzera: *Aberuen etzaldea* edo eta *Nikolas txikiren oporrak* bezalako tituluak direla gehienetan azaltzen direnak itzulpen berriagoen oihartzun gutxi ikusten delarik.

Hala ere, gauza jakina da gutxiegi irakurtzen dela orokorrean eta irakasleak ez dira maiztasun falta honetatik aske geratzen. Gure iritziz, (eta dudarik gabe oso diskutigarria da) argitaratzen dena ezagutarazteko bide gehiago zabaldu behar dira, eta irakaskuntzaz ari garenez, irakasleari "eskuragarriago" gertatu behar zaizkio argitalpenak. Zentzu honetan, benetan interesgarri deritzogu euskal argialetxe batek irakurketa-fitxen bidez atera duen katalogoari (adibide bat jartzekotan).¹⁰

2) Bestalde, idazle-zerrenda horiek ikusterakoan beste gauza batez ohartu gara: itzulpenez landa, euskal idazleen elaberriak aipatzerakoan behin eta berriro betiko tituluak azaltzen zitzaizkigula.

Zailtasun handiz irakurzaletuko dugu ikasle bat baldin eta BBBko lehenengo kurtsoan *Garoa* eta *Leturiaren egunkari ezkutua* irakurtzera (eta aztertzer) behartzen badugu. Eta honekin, ez genuke elaberri hauei buruzko juzku literarioerik egin nahi. Esan nahi duguna beste ildotik doa: 1957az gerotik elaberri asko argitaratu da (ia guztiak) behin eta berriro elaberria berak irakurtzen aritzeko.¹¹

Adierazi nahi duguna Schüking-ek bere liburuan argiro azaltzen du, hau da, bere ustez eskola eta unibertsitatea dira literatur gustu kontserbatzaileena erakusten dutenak.¹²

Helduen literatura vs gazte-literatura?

Puntu honetan aurreko puntuan esandakoarekin zerikusirik eduki dezakeen arazo bat aipatu nahiko genuke. Ikasleei irakurtzeko agintzen zaizkien liburuetan badago eskolaren aldetik helduen literaturari dagozkion lanak eskatzeko joera. Euskaraz joera hau nabarmenagoa da erdaraz baino, gazteentzat eginiko testuak urriagoak (ezezagunagoak?) baitira.

Baina zeri deritzogu 'gazte-literatura'? Tradizionalki gazteentzat idatzitako testuek osatzen dutela esan izan da. Baina, egia esan, Literaturaren Historian gazteentzat espreski idatzitako liburuak egon direla egia bada ere (Ciceronek bere semeari zuzendutako *De Officiis*-etik hasita Erdi Aroko *Calila e Dimna*-raino), jatorrian helduentzat idatzitakoak izan ziren beste testu batzuk arrakasta handiagoa eduki zuten gazteen artean: Cervantes-en *Quijote*-a, Walter Scott, Manzoni eta Dumas-en (aita) elaberri historikoak, edo eta orokorki abenturazkoen sailean kokatzen ditugun, baina gazteen artean helduen artean baino arrakasta handiagoa izan zutenak: Defoe, Marryat, Stevenson, Jules Verne, Conrad, Melville, Kipling, London,...

Beraz, 'gazte-literatura' gazteek irakurtzen duten literatura motari deritzogula esango dugu. Hau horrela izanik, eta goian aipatutako adibideak gogoratu, ez dugu ulertzen jende (irakasle) askok talde horretan kokatzen diren idazleekiko duten mesfidantza. Literatur 'kalitatearen' erizpidepean aurreiritzi ugari dagoela esan behar, gure ustez.

(10) Azkenaldi honetan gure belarrietara iritsi da Gipuzkoa aldean irakasle talde batek irakurgaien deskribapen eta selekzio lanetan diharduela, nolanihere irakaskuntza maila desberdinetan interesgarriak gerta litezkeen irakurgaiak proposatuz. Honi buruz datu gehiagorik ez dugu, baina ildo honetatik joango litzateke adierazi nahi izan duguna.

(11) Nahiko harriturik geratu ginen ikasleek zenbait elaberri kurtso desberdinetan birritan edo hirutan irakurri dituztela esan zigutenean. Eta ez ziren gustoz egiten diren literatur irakurketa horiei buruz ari.

(12) Schüking, Levin L. *El gusto literario*, F.C.E.: Mexico, 3. argitalpena, 1969.

Batxilergoaren onurak

Inkestan ikusi ahal izan dugunez, BBBko ikasleak dira maiztasun handiagoz irakurtzen dutenak erdaraz. Euskarari dagokionean ere, maiztasun orekatuena IEE-koekin batera beraiek dutela esan behar.

Bestalde, esan dezagun bertsozaletasuna Lanbide Heziketan dela nagusi besteekiko alde nabarmea dagoelarik. Beraz, ikasketa motak badu eraginik irakurketa gustu eta maiztasunean.¹³

Baldintza linguistikoez

Inkesta honen ondorioetan ikusi ahal izan dugunez, euskaldunzahar ala euskaldunberri izateak badu bere eragina hizkuntza bateko literatura ala bestekoa aukeratzekoan. Badirudi euskaldunzaharrek maizago irakurtzen dutela euskaraz erdaraz baino (nahiz eta euskarazko irakurketan kopuruak oso antzekoan direla onartu behar den), eta euskaldunberriek alderantziz. Euskaldunberriak ditugu, aldiz, udan gehien irakurtzen dutenak.

Bestalde, eredu euskaldunetan egoteak ez du erdarazko irakurzaletasuna gutxitzen. Honi dagokionean, interesgarria izan da betidanik euskalduna izan den ikastetxeak, hots, ikastolak, erdarazko elaberri irakurzaletasuna handiena zuela ikustea.

Horrekin batera, argi dago gurasoen euskara-mailak gurasoen ogibideak baino eragin handiagoa duela. Guraso elebidunen seme-alabek gehiago irakurtzen dute euskaraz; eta alderantziz, guraso elebakarren seme-alabek gehiago irakurtzen dute erdaraz.

Azkenik, datu bitxi bat aipatu nahiko genuke: gurasoen ikasketa mailak duen eraginarena, alegia. Datuen arabera, gurasoen prestakuntza mailak elaberri irakurzaletasun handiagoa sortzen du bi hizkuntzetan, nahiz eta, behin eta berriro azpimarratu dugunez, nabarmenagoa den amaren prestakuntza-mailak duen eragina.

Elaberriaren kasuan hori horrela bada ere, badirudi bertsozaletasunean beste baldintza batzuk ematen direla. Horrela, seme-alaba bertsozaleen atzean ikasketarik gabeko gurasoak egon ohi dira gehienetan. Halaber, olerkiari buruz zerbait esatekotan, bada olerkiaren kasuan aipagarri suertatzen den ezaugarri bat: olerkizaleen aita, normalean ikasketa-maila handikoa izan ohi da.

Nesken nagusitasunaz

Literatur tradizioan jakina denez, neskek, eta orokorrean emakumezkoek literatura gehiago irakurtzen dute. Erdi Aroan nabarmena zen joera honek XIX.ean eskuartearen elaberria (arrosa, erromantikoa, gehienetan) duelarik irakurtzen diharduen emakumearen irudira garamatza.

Gure inkestan nagusitasun hau elaberri, olerki eta antzerkian ikusi bada (bi hizkuntzetan gertatzen da hau), ez da hala gertatzen "historia/kritika"ri dagokionean. Badirudi mutilak teoriarezaleagoak ditugula neskak baino.

Bestalde, ipuingintzari (eta herri literaturari) dagokionean gauzak antzeratsudauden bitartean, bertsozaletasunean aipagarria da mutilen gehiengoa. Bertso-munduan ematen den gertakari argiak zaletasunean du bere isla: gizonezko bertsolari

(13) Berriro ere, "eragin" hitzaren gainean 5. oinoharrean geniona gogoratu nahiko genuke.

gehiago dago (askoz gehiago), eta hori horrela izanik, irakurle goaren gehiengo ere sexu berekoa da.

Sexu 'rol' banaketa horri dagokionean, inkesta honetan ere ikusi dira ohizkoak gertatzen zaizkigun zenbait ezaugarri. Neskek normalean elaberri 'estatikoak' dei dakizkikeenak (psikologikoak, adibidez) mutilek baino neurri handiagoan irakurtzen dituzte, eta abenturazaletasuna ikasle guztiaren gustuen ezaugarri amankomuna izan arren, badirudi neskek sentimendu elaberrietara jotzen dutela.

Jarrera horren ondorio izan daiteke, neskak izatea euskal literatura orijinala gehien irakurtzen dutenak eta aldi berean gaztekeraz ere gehiago irakurtzea. Mutilek, aldiz, hobeto onartzen dituzte euskarara itzulitakoak.¹⁴

Liburuak edukitzearen probetxuek

Argi ikusi dugu, etxean gero eta liburu gehiago eduki, irakurzaletasunak gora egiten duela jenero guztietan hizkuntza desberdinetan. Beraz, liburuak kalterik ez baina onura ugari ekar diezaioke gazte eskolatuari.¹⁵

Zentzu honetan, irakurtzen zituzten liburuak non lortzen zituzten galdetzen genienean gogora dezagun %22,1ak erosi egiten zituela, besteek, lagunek/familia-koek utzita edo eta liburutegi desberdinetan lortzen zituztelarik.

Berriro ere krisi garai hauek aipatu behar baditugu ere, badirudi gure artean liburutegiek duten (ez duten) oihartzuna dela medio, oraindik orain erositako liburuak, etxean daukagunak ekartzen digutela onurarik handiena.

Euskal Literatura klaseak, planteamendu berrien beharraz

Beste adituen artean Robert Escarpit-ek¹⁶ eskolatik bakarrik sortu den irakurketak iraupenik ez duela esaten digu. Badirudi gure artean irakurketa-maiztasunak eskolarekin duen lotura gainditu beharreko oztipoa dugula.

Alabaina, oztipoak arrazoi eta funtsa serioak eduki ditzake atzean. Gogora dezagun, bestela, irakurketaz egin diren ikerlan askotan populazioaren alfabetakuntza orokorrak 'irakurketa-estetikoaren' sorrerarekin duen lotura azpimarratzen zaigula. Hau da, literatur testu bat literarioki irakurri ahal izateko, lehenengo irakurtzen ongi jakin behar da eta gure artean ezagutzen dugun hizkuntza egoerak, argi dago, populazio zabal baten artean, luzaroan irakurketa 'funtzionalak' eragingo dituela.

Baina gatozen azterkizun dugun populaziora. Teorian, gazte hauek euskal alfabetatuen taldekoak ditugu, euskara-maila ona dutenak, eta literatur irakurketa ematekotan, baldintza gehientsuenak beteko lituzketenak.

(14) Joera honen adibideak lan honetan zehar aipatu baditugu ere, eman ditzagun zenbait datu. Neskei gehiago gustatzen zaizkien elaberriagileen artean V.C. Andrews (bere irakurleen artean %90,9a neskak dira eta %9,1a mutilek) daukagu zeinaren *Flores en el ático* edo *Pétalos al viento* elaberriak inkestatuen zati handi batek irakurri dituen, honekin batera Di Pego, Sheldon eta Martin Vigil ere aipa daitezke.

Mutilei, berriz, C.Doyle, Lovercraft eta Salgari gehiago gustatzen zaizkie.

Beraz, orokorrean ekitza elaberriak badira gehien irakurtzen direnak, badira neskei bereziki gustagarriagoak suertatzen zaizkien lanak.

(15) 2.837 kasutatik 1.176k 0-20 liburu bitartean zituen (%41,45a), 1.118k 20-50 liburu inguru (%39,40a) eta 512k 50 baino liburu gehiago zituen (%18,4a).

(16) *La faim de lire*, Unesco: Paris, 1973.

Hori horrela bada ere, egiten genizkien galderetan Euskal Literaturaz zuten iritzia galdetzean, interesgarri ezezik hezitzaile iruditzen zitzaizela esaten ziguten. Benetan erantzun bitxia 'teorian' literatura gustora irakurtzen duen batengan.

Horrekin batera, euskal literatura klaseei buruzko iritzietan datu deigarriak azaltzen zitzaizkigun: euskal literatura ulertzen laguntzen zutela, euskara maila hobetzen laguntzen zutela eta euskal nortasunaz hobekien jabetzen ere laguntzen zutela esaten zitzaigun. Alabaina, klase hauek ez zuten euskal literatura gehiago irakurtzera bultzatzen. Eta hementxe dago gakoa.

Badirudi, arrazoi asko direla medio (hizkuntzaren egoera, irakaskuntza sistema, literatur produkzio berriak duen oihartzun eskasa) literatur irakurketa 'beharrezkoa' edo 'mesedegarria' dela baina ez "erakargarria".

Uste dugu, noizbait euskal literatura klaseak eman ditugunok askotan eduki dugula agindutako (agian hemen dago arazoa) irakurgai askoren gainean zalantza mordoa, edo halakorik gertatu ez denean, askotan ikusi dugu gure ikasleek 'behartuta' irakurtzen zutela, ez gustora. Eta, egia esatekotan, arazo nagusia hau delakoan gaude. Baldintza berriak lortu behar ditugu (irakurgai eskaintza gaurkotu eta zabaltzetik hasiz) irakurzaletasuna ikasleengan eman dadin.

Seguraski, gauza hauetan errezetak ematen hasteko pertsona egokienak ez gara, baina gure iritzi apalean, badira bi alderdi gutxitan kontsideratzen direnak:

a) Batetik, irakurketaren bigarren alderdia idazketa dela gogoratzea. Irakurketa bera sorkuntza lana izanik, banaezinezko bikotea suertatzen dira irakurketa eta idazketa (ildo honetatik doaz Harreraren Estetikan eta Post-estrukturalismoaren baitan azken lanak). Gauzak horrela, sorkuntza bultzatzea laguntza handia izan daiteke irakurzaletasuna ikasleengan pizteko.¹⁷

b) Bestalde, ikasketa-programetan hain ezagunak zaizkigun testu-azterketa sakon etengabekoek badirudi askotan irakurketa bete beharreko fitxa didaktikoetara mugatzen dutela, irakurketaren beraren helburu behinena ahaztuz: irakurritz gozatzea.

Hemen adierazi nahi duguna 92an Frantzia Pennac-ek argitaratu zuen *Nobela bat bezala* liburuan esandakoaren ildotik doa.¹⁸ Bertan, Institutuko irakasle den egile honek (eta lankidea, beraz) literatur irakurketa benetan gara dadin zenbait gomendio ematen du, eta, besteak beste, irakurlearen eskubideekin dekalogo bat idazten du.

Dekalogoan aipatzen den lehenengo eskubidea "EZ IRAKURTZEKO ESKUBIDEA" harriarria delarik, sakonean, askotan gure buruei eginikako galderei erantzuten saiatzen diren proposamen interesgarriak eskaintzen dizkigu.


Ez bukatzeko

Lan honetan eskuartean genuen inkestaren datuei buruz ihardutea zen gure helburua. Datu hauen behin-behinekotasuna onartuz (oraindik amaitugabe dagoen lan zabalago baten zati bat besterik ez baitira), zenbait ondorio eta ohar egiten saiatu gara. Dena dela, irakurketari buruzko auzi honetan gurea ez baino besterena dateke hitza. Horra hor, beraz, enbidoa.


(17) Eritzi honetakoa da Schüking bere liburuan. Hau horrela izanik gazte eskolatuen artean antolatzen diren leihaketa eta idazketa-ikastaroei onugarraria eritzi dakieke.

(18) Gaztelarazko argitalpena, Pennac, D., *Como una novela*, Bartzelona: Anagrama, 1993.

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEA
UDALERRIAK



I. ERANSKINA (b)



II. ERANSKINA

IRAKURKETA OHITUREI BURUZKO INKESTARI DAGOKION MOSTRA

bizt	ikeuspct	iktot	izen	hiri	probin	ikast	ikask	n° ent.
1	1	1	IFP.	MUNGI	BIZKAIA	PU	REM	22
1	1	2	IB.TX	DERIO	BIZKAIA	PU	BUP	58
1	1	2	IB.AL	ALSAS	NAFARROA	PU	BUP	58
1	1	3	IB.OR	ORONO	NAFARROA	PU	BUP	45
1	1	3	E.PR	ORDIZ	GIPUZCOA	PR	FP	45
1	1	3	IB.ES	MUNGI	BIZKAIA	PU	BUP	45
1	2	1	IB.RO	OÑATI	GIPUZKOA	PU	BUP	43
1	2	1	E.PRO	ORDIZ	GIPUZKOA	PR	REM	43
1	2	1	IFP.	ZUMAI	GIPUZKOA	PU	REM	43
1	2	2	C.IRA	AZPEI	GIPUZKOA	PR	BUP	54
1	2	2	IB.AZ	AZPEI	GIPUZKOA	PU	BUP	54
1	2	2	IB.LE	LEGAZ	GIPUZKOA	PU	REM	54
1	2	2	IB.AR	IGORR	BIZKAIA	PU	BUP	54
1	2	3	N.SRA	ESKOR	GIPUZKOA	IK	REM	60
1	2	4	IB.ON	ONDAR	BIZKAIA	BU	BUP	57
1	3	1	LARR	MUNGI	GIPUZKOA	IK	BUP	46
1	3	1	KARME	AZPEI	GIPUZKOA	IK	REM	46
1	3	1	LARR	MUNGI	BIZKAIA	IK	BUP	46
1	3	2	KARME	AZPEI	GIPUZKOA	IK	BUP	62
1	3	2	ALKAR	BEASA	GIPUZKOA	IK	BUP	62
1	3	3	LAUR	LOIU	BIZKAIA	IK	BUP	60
2	1	1	BARRU	BERME	BIZKAIA	PU	FP	36
2	1	3	IFP.	TOLOS	GIPUZKOA	PU	FP	51
2	1	3	IB.JO	LEIOA	BIZKAIA	PU	BUP	51
2	1	4	IB.CA	LLODI	ARABA	PU	BUP	55
2	1	4	IB.OR	TOLOS	GIPUZKOA	PU	BUP	55
2	1	4	C.ASK	LEIOA	BIZKAIA	PR	BUP	55
2	2	1	C.ANT	ZARAU	GIPUZKOA	PR	BUP	40
2	2	1	IFP.	TOLOS	GIPUZKOA	PU	REM	40
2	2	3	IB.BE	BERGA	GIPUZKOA	PU	BUP	45
2	2	4	IB.LI	ZARAU	GIPUZKOA	PU	BUP	65
2	3	1	LARRA	ANDOA	GIPUZKOA	IK	REM	48
2	3	1	PASAI	PASAI	GIPUZKOA	IK	BUP	48
2	3	3	USABA	TOLOS	GIPUZKOA	IK	BUP	68
3	1	2	ESCUE	EIBAR	GIPUZKOA	PU	REM	41
3	1	2	C.S.J	DURAN	BIZKAIA	PR	REM	41
3	1	4	IB.PI	IRUN	GIPUZKOA	PU	BUP	53
3	1	4	E.ARM	EIBAR	GIPUZKOA	PU	FP	53
3	1	4	IB.SA	SANTU	BIZKAIA	PU	BUP	53
3	2	2	S.VIA	ARRAS	GIPUZKOA	IK	REM	40
3	2	2	E.LA	IRUN	GIPUZKOA	PR	REM	40
3	2	3	E.POL	ARRAS	GIPUZKOA	PR	REM	72
3	2	4	IB.IG	EIBAR	GIPUZKOA	PU	BUP	52
3	2	4	IB.GE	GETXO	BIZKAIA	PU	BUP	52

bizt	ikeuspct	iktot	izen	hiri	probin	ikast	ikask	n° ent.
3	3	1	IB.FR	DURAN	BIZKAIA	PU	REM	31
3	3	2	ORERE	ERREN	GIPUZKOA	IK	BUP	58
4	1	1	IFP.	DONOS	GIPUZKOA	PU	REM	36
4	1	4	IB.GA	BILBO	BIZKAIA	PU	BUP	54
4	1	4	IB.BA	BARAK	BIZKAIA	PU	BUP	54
4	1	4	IB.NA	IRUÑA	NAFARROA	PU	BUP	54
4	2	3	IB.XA	DONOS	GIPUZKOA	PU	BUP	69
4	3	1	AXULA	DONOS	GIPUZKOA	IK	BUP	53
4	3	1	IFP.	DONOS	GIPUZKOA	PU	REM	53
4	3	1	KIRI	BILBO	BIZKAIA	IK	BUP	53
4	3	2	RAIMU	GASTE	ARABA	IK	BUP	51
4	3	3	BARAN	DONOS	GIPUZKOA	IK	BUP	67
4	3	4	S.TOM	DONOS	GIPUZKOA	IK	BUP	90

EGIN BEHARREKO INKESTEN BANAKETA IKASTETXEZ-IKASTETXE

1. Mungiako LH (22 inkesta) 1goan -22	3.ean -10 4.ean -5	11. Legazpiko B.I.(54) 1goan -16 2.ean -13 3.ean -14 UBIn -11
2. Txorierrri B.I.-Derio (58) 1goan -20 2.ean -14 3.ean -13 UBIn -10	6. Mungiako B.I. (45) 1goan -14 2.ean -10 3.ean -10 UBIn -11	12. Igorreko B.I. (54) 1goan -17 2.ean -14 3.ean -14 UBIn -9
3. Altsasuko B.I. (58) 1goan -19 2.ean -14 3.ean -13 UBIn -12	7. Oñatiko B.I. (43) 1goan -8 2.ean -11 3.ean -11 UBIn -13	13. Almen Ikastola (Eskoriatza) (60) 1goan -18 2.ean -33 3.ean -11 4.ean -8
4. Oronozko B.I. (45) 1goan -14 2.ean -12 3.ean -10 UBIn -9	8. Zumaiako L.E.(43) 1goan -10 2.ean -14 3.ean -12 4.ean -7	14. Ondarruko B.I. (57) 1goan -13 2.ean -16 3.ean -16 UBIn -12
5. Goierriko L.E. (Ordizia) (45) 1goan -25 2.ean -20 Goierriko L.E. (IEE) (Ordizia) (43) 1goan -18 2.ean -10	9. Iraurgi Ikastetxea (Azpeitia) (54) 1goan -24 2.ean -20 3.ean -10 10. Azpeitiko B.I.(54) 1goan -12 2.ean -11 3.ean -14 UBIn -17	15. Larramendi Ikastola (Andoain) (BBB-46 , IEE-48) 1goan -27 2.ean -38 3.ean -15

- 4.ean -12
UBIn -12
16. **Karmelo Etxegarai Ikastola (Azpeitia) (BBB-62, IEE-46)**
1goan -38
2.ean -18
3.ean -26 (BBB 3.mixt)
UBIn -24
17. **Larramendi Ikastola (Mungia) (46)**
1goan -16
2.ean -13
3.ean -11
UBIn -6
18. **Alkartasuna Lizeoa (Beasain) (62)**
1goan -17
2.ean -17
3.ean -14
UBIn -14
19. **Lauro Ikastola (Ioiu) (60)**
1goan -17
2.ean -17
3.ean -12
UBIn -14
20. **Bermeoko L.E. (36)**
1goan -12
2.ean -6
3.ean -7
4.ean -3
5.ean -8
21. **Tolosako L.E. (LH.51, IEE-40)**
LH:
1goan -9
2.ean -31
3.ean -11

IEE:
1goan -40
22. **J.M. Barandiaran B.I. (Leioa) (51)**
1goan -29
2.ean -22
23. **Cancellor Ayala B.I. (Laudio) (55)**
1goan -17
2.ean -21
3.ean -8
UBIn -9
24. **Orixe B.I. (Tolosa) (55)**
1goan -16
2.ean -14
3.ean -9
UBIn -16
25. **Askartza Claret Ikastetxea (Leioa) (55)**
1goan -16
2.ean -16
3.ean -14
UBIn -9
26. **Colegio Antoniano (Zarautz) (40)**
1goan -16
2.ean -14
3.ean -5
UBIn -5
27. **Bergarako B.I. (45)**
1goan -12
2.ean -13
3.ean -13
UBIn -7
28. **Lizardi B.I. (Zarautz) (65)**
1goan -15
2.ean -20
3.ean -18
UBIn -12
29. **Gernikako B.I.(65)**
1goan -19
2.ean -16
3.ean -14
UBIn -16
30. **Pasaia Lizeoa (48)**
1goan -14
2.ean -13
3.ean -11
UBIn -10
31. **Usabalgo Laskorain Ikastola (Tolosa) (68)**
1goan -20
2.ean -21
3.ean -18
UBIn -9
32. **Escuela De Armeria (Eibar) IEE-41**
1goan -41

LH-53
1goan -10
2.ean -16
3.ean -16
4.ean -5
5.ean -6
33. **San Jose Ikastetxea (Durango) (41)**
1goan -12
2.ean -12
3.ean -10
4.ean -7
34. **Pio Baroja B.I. (Irun) (43)**
1goan -12
2.ean -9
3.ean -8
UBIn -14
35. **Santurtziko B.I. (53)**
1goan -19
2.ean -15
3.ean -10
UBIn -9
36. **San Viator Ikastola (Arrasate) (40)**
1goan -15
2.ean -12
3.ean -6

- 4.ean -7
37. La Salle (Irun) (40)
1goan -14
2.ean -14
3.ean -6
4.ean -6
38. Eskola Politeknikoa (Arrasate) (72)
1goan -23
2.ean -27
3.ean -9
4.ean -13
39. Ignacio Zuloaga B.I. (Eibar) (52)
1goan -12
2.ean -17
3.ean -11
UBIn -12
40. Getxo-3 B.I. (53)
1goan -13
2.ean -17
3.ean -14
UBIn -9
41. Orereta Ikastola (Errenteria) (58)
1goan -18
2.ean -16
- 3.ean -14
UBIn -10
3.ean -16
42. Manteo L.E. (Donostia)
1goan -18
2.ean -11
3.ean -7
43. Iturramako B.I. (Iruñea) (54)
44. Barakaldoko B.I. (22)
1goan -22
45. Navarro Villoslada B.I. (Iruñea) (54)
1goan -29
2.ean -25
46. Usandizaga B.I. (Donostia) (52)
1goan -25
2.ean -15
3.ean -19
UBIn -10
47. Axular Lizeoa (Donostia) (53)
1goan -23
2.ean -20
- 3.ean -10
48. Martuteneko L.E. (Donostia) (53)
1goan -31
2.ean -22
49. Kirikiño Ikastola (Bilbo) (53)
1goan -15
2.ean -13
3.ean -14
UBIn -11
50. Olabide Ikastola (51)
1goan -17 2.ean -18
51. Barandiaran Lizeoa (Donostia) (67)
1goan -13
2.ean -20
3.ean -18
UBIn -16
52. Santo Tomas Lizeoa (Donostia) (90)
1goan -22
2.ean -23
3.ean -22
UBIn -23

III. ERANSKINA

Inkesta egin dugun udalerrien sailkapena eremu euskaldunenaren eta erdaldudenaren arabera, aipatu udalerrien biztanle kopurua kontutan hartuz. (Datu hauek Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak burututako Soziolinguistikazko mapatik hartu dirugu.)

A. Eremu Euskaldunena:

1. 1.000-4.999 biztanle arteko eta %50-74 arteko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

ESKORIATZA
IGORRE
LOIU

2. 5.000-14.999 biztanle arteko eta %75-az gorako euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

AZKOITIA
AZPEITIA
OÑATI
ONDARROA

3. 5.000-14.999 biztanle arteko eta %50-74 arteko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

MUNGIA
ZUMAIA

4. 5.000-14.999 biztanle arteko eta %40-49 arteko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

BEASAIN
LEGAZPI
ORDIZIA

5. 15.000-24.999 biztanle

arteko eta %50-74 arteko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

BERGARA
BERMEO
GERNIKA-LUMO
TOLOSA
ZARAUZ

6. 15.000-24.999 biztanle arteko eta %40-49 arteko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

ANDOAIN

7. 25.000 biztanle baino gehiagoko eta %40-49 euskaldun propor-tzioko udalerriak:

ARRASATE
EIBAR

8. 25.000 biztanle baino gehiagoko eta %25-39 euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

DONOSTIA
DURANGO

B. Eremu Erdaldunduak:

9. 5.000-14.999 biztanle arteko eta %10 edo gehiagoko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

DERIO

10. 15.000-24.999 biztanle arteko eta %10 edo gehiagoko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

LAUDIO
LEIOA
PASAIA

11. 25.000 biztanle baino gehiagoko eta %5az azpiko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

BARAKALDO
SANTURTZI

12. 25.000 biztanle baino gehiagoko eta %5-9 arteko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

BILBO
GASTEIZ

13. 25.000 biztanle baino gehiagoko eta %10 edo gehiagoko euskaldun-propor-tzioko udalerriak:

ERRENTERIA
GETXO
IRUN

III. ERANSKINA (b)

Inkesta egin dugun udalerrien zerrenda biztanle kopurua eta euskaldun-proporzioa kontutan hartuz:

1. 1.000-4.999 biztanle arteko udalerriak:

IGORRE	%50-74	Euskaldun-Proporzioa
LOIU	%50-74	" "
ESKORIATZA	%50-74	" "

2. 5.000-14.999 biztanle arteko udalerriak:

DERIO	%+10	Euskaldun-Proporzioa
BEASAIN	%40-49	" "
LEGAZPIA	%40-49	Euskaldun-Proporzioa
ORDIZIA	%40-49	" "
MUNGIA	%50-74	" "
ZUMAIA	%50-74	" "
AZPEITIA	%+75	" "
ONDARROA	%+75	" "
OÑATI	%+75	" "


3. 15.000-24.999 biztanle arteko udalerriak:

LAUDIO	%+10	Euskaldun-Proporzioa
LEIOA	%+10	" "
PASAIA	%+10	" "
ANDOAIN	%40-49	" "
BERGARA	%50-74	" "
BERMEO	%50-74	" "
GERNIKA-LUMO	%50-74	" "
TOLOSA	%50-74	" "
ZARAUTZ	%50-74	" "

4. 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak:


BARAKALDO	%-5	Euskaldun-Proporzioa
SANTUTXU	%5	" "
BILBO	%5-9	" "
GASTEIZ	%5-9	" "
ERRENTERIA	%+10	" "
GETXO	%10	" "
IRUN	%10	" "
DONOSTIA	%25-39	" "
DURANGO	%25-39	" "
ARRASATE	%40-49	" "
EIBAR	%40-49	" "

Nob.motak.Ez-gogokoak




Datu totalak eta portzentaiak

6.7 Aukeratutako tituluak (guztiak asmatutakoak dira)




Datu totalak eta portzentaiak

Maiztasuna euskaraz




Totalak eta portzentaiak

Gustoko nobela motak




Datu totalak eta portzentaiak

Maiztasuna erdaraz




Totalak eta portzentaiak

Udako irakurketak




Datu bertikalak. (%)

Eskolako irakurgaiak Lit. ulertzen laguntzen dute




Datu totalak eta portzentaiak

Liburuak non lortu




Datu totalak eta portzentaiak

Eskolako irakurgaiak Euskal Li.gehiago irakurtaraz




Datu totalak eta portzentaiak

Eskolako irakurgaiak Euskara-maila hobetzen dute




Datu totalak eta portzentaiak

Euskal lit./beste literatura Iritziak.Erkaketak




Datu totalak eta portzentzialak

Euskal Lit.irakurtzea




Datu totalak eta portzentzialak

Euskaraz irakurtzeak




Datu totalak eta portzentaiak

Euskaraz gustokoenak



Datu totalak eta portzentaiak


Itzulitako gustokoenak



Datu totalak eta portzentziak


Euskal egile gustokoenak

(27 egiletako zerrenda)



Datu totalak eta portzentziak

Kontuan hartutakoa



Datu totalak eta portzentziak